



zoko berri

TXEMA ARINAS



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

TXEMA ARINAS

zoko berri

|

Bizikletaz maldan behera goazela nire lagun Mâredak kirtenari gogor eutsi, pedaleei are gogorrago sakatu eta Landarren dorretxearen behealdean zabaltzen den harrizko enparantzaraino oldartu egin da ziztu bizian. Beti bezala kontuz ibiltzeko esatekotan egon naiz, oraingoan ordea isildu egin naiz badaezpada, ez dut nahi Mâredak behin berriro zernolako gogaikarria naizen leporatzea. Tamalez, eta esango dut gogait gaiztoz baldin bada ere, behin edo gertatu beharrekoa azkenean gertatu egin da. Algereria plazaren ondoko taberna batetik irten berri den gizon batekin talka egin du nire lagun maiteak, bizikleta eta guzti. Bai mutiko arina, gure Mâred, gizona oraindik lurretik zutitzeko ahaleginetan ari zela bizikleta altxatu, gainean berriro eseri, eta tutik ere esan gabe ospa egin du ondoan zegoen kale estu batetik galduz, gure kaletik, alajaina!

–Txerri alaena! –edo antzeko zerbait bota egin du gizonak, erdaraz, noski.

Behin zutitu eta gero, arropa bi eskuez haizatu, leundu eta oinetan zein belaunetan kalterik ez duela egiaztatu orduko, artean aldaparen goiko partean, nire bizikletaren gainean eta begiak zabal-zabalik nagoela deadar egiten dit ezustean.

–Hi, umemoko halakoa, etorri hona oraintxe bertan!!!

Egia esan ez dakit zer dela eta men egin diodan gizon arrotz horri. Nire amak beti esaten dit nagusiekin menekoa izan nadin, baina baita arrotzekin erne ibiltzeko ere, eta zenbat eta arrotzagoak, hau da, *nasriagoak*, gero eta erneago. Bestalde, ezin uka ez dudala zerikusirik gizona bete-betean jo duen mutiko lotsagabekoarekin, nire aurpegi *beltzarana* eta ile motz kizkurra salatzaile ditut.

–Ezagun al zenuen mutiko hori?

Ezin debaldeagoko galdera izan, baina koitadua egin beharrean omen zegoen. Bai, koitadua, ezin pentsa bestela harenganaino iritsi eta oraindik minsor eta aurreneko urratsak ematerakoan errenka egiten dituen agure burusoil potolo bizardun bat dakusadanean.

–Zure lagun horrek ia-ia akabatzen nau.

Begi bistan dago exajeratzen ari dela, bestela ez zatekeen hain azkar lurretik altxatuko. Nire amandreak ere maiz edo ia beti egiten du, atso-agure guztien ohitura omen da. Baina, gure etxean inork amandreak jaramonik egin ohi ez baldin badio, ez diot nik agure arrotz eta *nasri* honi egingo, nire lehengusu Hakîmek esan dit behin baino gehiagotan Koranak kristau eta juduez mesfidatzeko agintzen digula. Hala ere, Hakîmek bere hitzaz ere mesfidatzeko aholkatu ohi digu. Hakîmek beti erdi txantxetan hiz egiten du-eta.

–Kabroi halakoa, ez dit esan bakartzeko hitz bat ere esan. Kolpeak ez dit batere axola, ustekabeko hutsa izan da, gainera zaharra naiz baina oraindik sasoian nago. Benetan asaldatzen nauena, ordea, jendearen gizalegetasun falta da. Ustekabean elkar jo badugu ez da ezer pasatzen, ni behintzat ez naiz biraoka edo jipoika hasiko. Baina jo eta gero ezer esan gabe ospa egiten baldin baduzu, bai, orduan printzipioz zor dizudan begirune osoa ziplo galduko duzu, eta noizbait edo harrapatzen baldin bazaitut ziur zaude kolpea itzuliko dizudala, eta ahal baldin dut barrabletatik eta guzti zintzilikatu ere egingo zaitut. Esaiozu ba zure lagunari ni bezalako agure errugabeko bat akatu nahi izan duen hurrengorako.

Aho zabalik, txunditurik, Koranek kristau zein juduez mesfidatzeko ematen dituen aholku edo agindu guztiei men eginez handik hainbat arinen ihesi egiteko irrikan.

–Beldurrak al zaude? Lasai mutil, exajeratzen ari nintzen. Ba al dut eskubiderik zure lagun hori nire gainean amildu eta gero kexatzeko, ezta?

Bat-batean itsaso bat zabaltzen ari da nire begi ezin kokilduagoen aurrean, gizonaren galdera erantzuteko behar beste denbora behar dudana. Baina ez al da konturatzen agure hau bederatzi urteko mutiko xume bat bakarrik naizela?

–Tira ba, ez izutu, ez dizut zure lagun malapartatu horren errua botako, baina bai harengana joan eta egin duena ez dela batere bidezkoa esan diezaiozula nahi dut.

Esango diot, noski, ni ere gaizki egin duelakoan nago. Mâredi maiz esaten diot zuzen jokatzeko kalean topatzen dugun jendearekin, baina berak kasurik ez, zer dela eta zintzo jokatu behar dugu, gu ikusi eta jarraian sudurra zimurtu eta askotan ere ahapeka eta beti *mairu zikinak* hitzez bukatzen diren purrustadak egiten dutenekin. Hobe dugu haiengandik ahalik eta azkar eta urrunen alde egitea hizkamizka ez hasteko, zeren, behin hasi ezker, gu beti izango baikara galtzeko aukera guztiak izango dituztenak.

–Ene Jainko Madarikatua! Zer duzu orain, mutiko? Ez al dizut esan jango ez zaitudala?

Lehenago nere begien aurrean begitandu zaidan itsaso zabal horretan nabigatzen ari naiz, noraezean gainera.

–Gor eta mutu geratu al zara?

Ez dakit nora harrapatu nauen ron kupel itxura duen itsaslapur zaharkote honek, baina nire bizikleta besapean hartu eta ozta-ozta arrastaka narama Flor de Lis izena duen aurreko tabernaraino, gizona Mâredekin topo egin baino lehenago irten berria zen tabernaraino hain zuzen ere.

–Ea ba patata-tortilla pintxo batez askatzen duzun mingain hori.

Gure ama beti kexaka ari da nire anaia etxekalteak ez duela lanik egiten, areago, ez duela bilatu nahi, tabernetan ordu pila sartu nahiago duela, eta gainera beti *nasri* artean auskalo zernolako tratu edo jokoetan. Ni behin bakarrik sartu nintzen Rashiden eskutik halako kubazolu batean, eta hain ke itogarria zein burrunba entzungorgarria zeuden ezen handik lehen baino lehen irteteko erregutu egin nion, ia belauniko jarri arte.

–Laga trastu hori izkina batean eta goazen sabeltxo hori merezi bezala betetzera!

Bizikleta izkinan jareinda egundoko ahaleginak egin beharrean nago begibista handik ez galtzeko. Lau katu besterik ez dago tabernan baina nire anaiak oparituriko bizikleta hain maite dudan ezen beti erne ibili behar den badaezpada; ez bainaiz *nasriez* batere fido..

–To, Alde Zaharreko patata-tortilla pintxorik gozoena. Freskagarririk nahi al duzu?

Begiak bizikletatik erabat ezin baztertuz itsaslapur bizardunak eskeinitako pintxoa hartu eta haginka hasten naiz. Ez da nik espero bezain goxoa, nire amaren *briuatsak* gustuagoko ditut.

–Ez horregatik, motel, baina esaidazu behintzat zein den zure izena.

Berrito tipo honek ahoa ireki orduko begien aurrean zabaltzen zaidan delako itsasoa.

–Ez duzu mingainik, ezta izenik ere?

–Alim, nire izena Alim da.

–Ali? Izen hori zuenean gure Iñaki edo Patxi bezalakoa ote da?

–Ali ez, Aliiiiiiiim! –oihu egiten dut benetan nazka-nazka eginda– jakintsua, buruargia, eskola handikoa esan nahi du!

Koskorreko bat sentitu dut oharkabeaz. Hau akabua da, hau! Geratzen zaidan pintxoaren otapurra bertan behera bota eta sartu naizen atletik antxintxiketan galtzen naiz. Nire kalera heldu eta bizikleta tabernan ahaztu dudala erreparatzen dut. Baina ez naiz kobazulo hartara berriro bueltatuko, ezta burutik eginda ere. Nik uste Alah-ri laido egin diodan bigarren aldia dela.

||

Ezin naiz etxera itzuli, ez behintzat bizikleta gabe, bai disgustu handia nire amarentzat, nire arrebak bere aurreneko lanpostu finkoaren soldataz eta, bestelako eta egiazko premiei muzin eginez, erositakoa, harrezkero etxeko harribitxi bakarra bailitzan etengabea aipatzen egiten dutena. Esan niezaieke auzoko ijitoek lapurtu didatela, baina gezur horrekin ez nuke inola ere nire amaren atsekabea gutxituko, areagotu baizik. Bizikleta berreskuratu behar dut nola edo hala. Baina ez dakit nora jo edo nola jokatu nire bizikleta maitea eta nire amak hainbeste gurtua berreskuratzeko. Esan nahi dut ez dakidala nora joan nire lehengusu Hakîmen zulora baino, orain dela urtebete, eta gure kalean eta gure jendearentzat propio negozio bat ipini ezean, Ganibeteria kaleko txiriboga zahar batean zabaldu zuen goxoki dendara. Hakînen ustez benetako irabazpidea ez zegoen gure jendeak hiriko alde zaharreko iparekialdeko kale txiker eta meharretan aspaldi eta edonon zabaldu zituen denda are txiker eta meharragoetan, *Urraitz* hiri zaharraren hegoaldeko kale luze, zabal eta batez ere saltseroetan, asteburuero *nasriez* gainezka egon ohi direnetan baizik, hots, taberna batetik ondokorako bidean gozokiak zein mota guztietako opiltxo koipetsuak jateko ohitura duten parrandazaleengan edota astean zehar alde zaharraren goialdean dagoen nire ikastolatik irtendakoan tropelean zeharkatzen dituzten umemokoengan. Nire lehengusu Hakîn beti izan zen senitarteko azkarrena, itsasartea pasatu zuen aurrenekoa, Espainia osoa goitik behera ibili eta gero hiri hau hautatu egin zuena, bere bizi-maila ikaragarri altua izanda, aukera handiak eskaintzen zizkiolakoan, eta baita hiri hegaletan eraikitzen ari ziren auzo berrietan peoi lanetan hasi orduko gainontzeko senitartekoak hona etortzeko animatu egin zituena ere. Oso buruargia izateaz gain Hakîm bada ere oso langile zintzoa eta kementsua, bere hasierako soldata murriztetik hasita eta orain dela urtebete arte obra-arduradun gisa kobratzen zuenaz bukatuta urtez urte eta euroz euro dezente aurreztu egin duena, hau da, betidanik gogoan edota helburu izan zuen negozio propioa zabaldu ahal izan bezainbat. Nire anaia Yâsarrek gure lehengusuaren arrakastak aparteko meritorik ez duela esan ohi du, Hâkimek ez baitu erretzen ezta edaten ere, eta jakina, gure lehengusu izugarri fededuna ez da sekula nesketan joaten, berak dioenez badu Nador inguruan emaztegai bat txikitandik eta bere negozio berriari esker behar beste aurreztu orduko hara joan, ezkondu eta hona bizitzera ekarri egingo du. Yâsarrek, aldiz, merito bakarra aitortzen dio: Marokon teologia ikasle hutsa izanda hemen peoi lan gogorra egin eta bere neurrian, hau da, gure jendearen neurrian, nolabait aberastu izana.

–Agure batek bizikleta lapurtu dit!

Egunero kontatzen diodan nire neke eta atsekabeen zerrrenda entzudakoan, nire lehengusuak ipini ohi duen mesfindantza keinua errotik ezabatzeko asmotan bota egin dut ia tupustean.

–Ez da posible, ez dago eskubiderik, denok auzokoak gara, elkar ezagutzen dugu, oraintxe bertan joango naiz udaltzainei salaketa egitera.

Behin berriro ez dakit benetan erantzun duen ala bere ohiko ironia gorrotagarriaz. Ageri da ez dudala modurik tipo sasijakintsu hau ustekabeen harrapatzeko. Egia borobila kontatu behar izango diot, bizikleta ez dit agure mozkorrontzi sasi-pederasta batek ebatsi, aitzitik, nik inoiz eta inola zapaldu behar ez nuen taberna zulo batean ahaztu egin dut. Ez dakit zenbat bider nire amari tutik ere ez esateko erregutu edin diodan.

–Lasai, mutil, bada denda ixteko ordua, oraintxe bertan lagundu egingo zaitut taberna horretaraino, han ahaztu egin baduzu bertan jarraitu behar du-eta.

Hâkimek denda itxi eta bere ohiko irribarre zabal eta goxoaren indarrez kalean gorantz ia herrestan narama. Hâkimek jantzi du bere larruzko jaka beltza, oraintxe bertan berak takian-potian hitz egiten dizkidan Saladinen gerlarrien sare-begi beltzak bezalakoa begintadu zaidana; hain harro eta seguru noa-eta Islamen gauzei buruz maisu dudan nire lehengusuaren laguntza jaso orduko, kruzadu beldurgarri eta odolzale baten modukoa neritzon agure burusoil potolo bizardunarengana.

Yusuf ibn Ayub Salah-eddin edo Salah ad-Din Yusuf al-Ayyubi (kurdueraz Selaheddîn Eyûbîen eta arabiarrez Yusub, Ayuben semea esan nahi duena, mendebaldean Saladin izenarekin ezagunagoa – 1138, Tikrit - 1193, Damasko), mundu islamiarreko agintaririk handienetakoa izan zen, Egipto, Siria, Palestinako sultana izan zelarik, baita Arabia, Libia eta Mesopotamiako eskualde batzuetakoa ere. Islamaren defendatzailea, bereziki sunnismo harena, Ekialde Hurbila politikoki eta erlijiosoki batu zuen, kristauei aurre eginez, eta Abbassiko Kalifatoan errepresentatutako kultu ofizialetik urrun zeuden edozein doktrinarekin amaituz. Bereziki ezaguna da Lurralde Santuak gurutzadak kentzeagatik, Jerusalem musulmanei itzuliz. Gertaera hau hain kolpe latza izan zen mendebaldearentzat, beste gurutzada bat ekarri zuen, Ingalaterrako Rikardo I ak agindua.

Horra hor gure Jerusalem bereziraino ailegatu garela, ditxosozko bizikleta ahaztu nuen Flor de Lis izeneko tabernaren aurrean geldi-geldi eta, Hâkimek oraindik ezer ez somatu arren, dardaiz ere bai.

–Ezin naiz sartu, ez dut nahi...

Zertarako behar nuen bestela nire Saladinen gerlari propioa? Zer dela eta ordubete lehenago edo jasan nuen lotsa berriro jasan behar? Noski ezetz, ez nuen kristau madarikatu horren lotsagabekeria berriro aguantatzeko inolako gogo edo asmorik, bai horixe!

–Ondo asko, ni neu bakarrik sartuko naiz zure bizikletaren bila.

Tabernaren aurrean geratu naiz Hâkimen zain, hau da, Jerusalemeko harresi ateetaraino heldu eta gero gure bi armadetako buzugazien bake negoziazioen emaitza onaren alde otoiz eginez.

–Bai, tipoa oraindik barruan dago eta bizikleta laga zenuen lekuan bertan, baina berak esan dit zu zeu bila sartzeko, bestela akabo, hobe izango duzula beste berri bat edonon topatzea.

Bai Saladin kaskarra, bakezale porrokatu baten orde z nire anaia Yâssar bezalako liskarzale odolbero baten beharrean nago, bizikleta nola edo hala, eta azkenean ostikoka baldin bada ere, niri bost, behingoz berreskuratzearren.

–Ezta pentsatu ere, tipo horrek izorratu besterik ez nau egin nahi lehenago nire lagunaren bizikletak harrapatu egin duelako.

–Esan dit argi eta garbi haretzek bizikleta gorde egin dizula beste inork eraman ez zezan, baina zuk zeuk eskuratu eta eskertzea nahi du.

–Baina ni ezin naiz sartu, amak debekatu egin dit *nasrien* tabernetara sartzea, bekatu larria dela dio.

–Zer bekatu eta zer deabru! Ni naiz familiaren teologo bakarra, eta horra lehenbailehen sartzeko agintzen dizut, bestela ez dizut inoiz berriro ezertan lagunduko.

–Baina...

–Bainarik ez, hitz egin berri dut agure horrekin eta oso tipo jatorra ematen du. Bestela zer dela eta zure zorioneko bizikletaz arduratu den gu bila agertu arte?

–Beldurak nago.

–Nik neuk barruraino lagunduko zaitut.

–Baina nor dugu hemen, gure Ali txikia, burumakur eta uzkur-uzkur datorrela.

Ez dakit Ali berriro deitu izana ala umemoko mairutxo hitza, edo agian ere bi gauzak batera, entzundakoan buelta erdi emateko gogoia sartu zitzaidan.

–Ez naiz Ali, Aliiiiiim baizik.

–Bale ba, Alimtxo, zein duzu zure burua bizikletak edonon sakabanatuta uzteko, Arabiako jeke baten semearena ala?

Haluf! Txerri halakoa! Zertara dator galdera petraldu hori? Ni bakarrik zirikatzearren edo baita nirekin batera auzoko dituen mairu guzti-guztiak ere? Ala ez al daki ondo baino hobeto kristau malapartatu honek magrebiarrok auzo honetako bezalako atso-agure gehienak besteko txiroak garenik? Gehienak – gu ordea Hâkimi esker bisaren bitartez eta ferryz iritsi ginen– Algeciraseko itsasartea laketontzian baino patera txatxar batean zeharkatu egin dugula? Ez al da konturatzen tripontzi alu hau esandako bidegabekeriaz?

–Ene, faborez, ez ipini mutur beltz hori, mutil, eta barkaidazu nolabait aztoratu egin baldin bazaitut; ez zen nire asmoa, txantxetan ari nintzen, egia esateko ni beti adar soinuan nabil.

Ondo ba, baina ni badaezpada inoiz baino adiago, ez baitzegoen fidatzekorik lehen esandakoa bezalako perlak botatzen dituen *nasri* batez. Banekien nik, edo gutxienez somatzen nuelakoan nengoen, agure tripontzi burusoil horren kasta zernolakoa den, ozta-ozta 1099ko uztailaren 15ean indarrez hartu eta ez judutar ez musulmanik errespetatzeke, ezta emakume edo haurrik ere, sekulako sarraskia egin kruzadu odol goseetarikoa.

–Aizu mutil, nik ez dizut batere okerrik egin, zuk eta zure lagun koldar iheskor horrek niri baizik. Ala ez al zara akordatzen? Ia-ia zuen ez dakit zenbat huriarekin edo baten batek zer motatako urdangarekin txortan etengabe gozatzeko moduko paradisu horretara bidaltzen nauzue.

Ezin entzun eta sinisturik nago, kristau malapartatu hau berriro gure kontura adarjoka eta horra hor Hâkim fededun zintzoa ia barrez lehertzeko moduan tabernaria edo dauden bezero apurrekin batera. Bai fededun ustela kristau artean egonda berehala euren zirto gaiztoetara makurtzen dena, zinez lotsatu beharrekoa. Baina, jakina, berak azaldu egin dit behin baino gehiagotan edo ondo baino hobeto zein zen *takiya* izeneko jokaera gure jendea halako basapiztien artean dagoelarik, hau da, disumulua eta itxuraz bakarrik men egitea, ezinbesteko jokabide maltzurra gure fedeari ezkutuan atxikitzeko asmotan eta oraingoan nire lehengusuaren portaera harrigarria nolabait zurrizko otutzen zaidan aitzakia bakarra.

–Ene Jainkoa! Hiru erlijioetakoa esan nahi dut. Gure Aliii txikia gaixoa gero eta bekoskoago jartzen ari da. Ikaratzen hasia naiz. Ez didazu lepoa moztuko zurekin apurtxo bat berbetan egin nahi izateagatik?

Noski ezetz, horregatik ez, nire kontura eta gainontzeko taberna zuloen gusturako adarjoka ibili, eta, batez ere, Ali behin berriro eta beti ni zirikatzeke asmoz bakar-bakarrik deitzeagatik baino. Eta baita gero eta irribarre handiagoa darakusan Hâkimi gure fedea zein ohorea defendatzeko oso propio ditugun beste baliabide eraginkorrago batzuk daudela gogoratzearen ere.

–Ba ez da batere bidezkoa zure jokabide hau, batez ere ni zanpatu eta gero.

–Nik ez zaitut zanpatu. Mâred izan da. Ni goiko partean nengoen zure gainera oldartu denean.

–Berdin dit nor oldartu zaidan. Nik behintzat ez dizut inolako errietarik bota izan zuen bizikletez aldapan gora eta behera zoro moduan ibiltzeagatik.

–Ni ez nabil zoro moduan inolako bizikleta gainean.

–Noski ezetz, zuk oso mutiko zintzoa ematen duzu, horrexegatik ez naiz hemendik mugitu, zu etorri arte zain, ahaztu duzun bizikleta gordetzearen.

Ez zara hemendik mugitu kristau gehienen modura mozkorrontzi hutsa zarelako, hau da esateko gogoan dudana, eta isilduko dudana ere tipo zeharo gorrotagarri honekin hika- mika ez jarraitzeko, nire asmo bakarra bizikleta berreskuratzea da, besterik ez.

–Ez duzu ezertan gizon honekin hain zakar portatu beharrik, alderantziz, eskertu behar zenioke zure bizikleta hain eskuzabalki gorde izanagatik.

–Hori da, egiezu kasu zure nagusiei, haiek badakitela nola jokatu nik bezain eskuzabalki eta eskerronez ere onartzen zaituzten bertakoekin.

Entzun beharrekoak, memelokeriak esateaz gain, orain agure arrazista madarikatu honek eskolak eman behar. Bistan dago bizikleta gorde egin didala gero ni bere pitokeriez nazkatzeko, hain ugari ematen den bere astiunea nolabait betetzeko asmotan edo, ezin baitut ulertu bestela zertara datorren tipo honen egoskorkeria nire kontura.

–Eskaiozu, beraz, berriro barkatzeko, eta eman ere eskerrak bizikleta hain prestu gorde izanagatik.

Baina baldin bada benetan ulertzen kostatzen zaidan zerbait nire lehengusu betiere irribarretsuaren jarrera otzana edo erabat koldarra da, hots, kruzadu mozkorrontzi honen maltzurkeriari aurre egiteko propio ekarri dudana paladin musulmana, ni hain mutiko koskor hutsa izanda agurearen ateraldi zakar guztioi erantzun arinak eta zorrotzak eman behar zizkion sasijakintsua.

–Tira ba, zuk bai ematen duzula tipo zintzo eta zentzuduna. Probatuko al duzu nire herriko ardo gozoa, munduko hoberena?

Txunditurik nago, zeharo, eta agurearen gu nola edo hala eta beti etengabe zirikatzeke egoskorkeriagatik ez ezik, Hâkim irribarre ezin zabal eta apalagokoa bere esanetara nola eta batez ere zein azkar makurtzen den dakusadalako baino.

–Ummm, goxo-goxoa, benetan diot, Jainkoak halako gauza zoragarria asmatu egin baldin bazuen ezin da ulertu zer dela eta debekatu behar. Korana oker ote dago?

Akabo, ezin dut jasan tamainako bidegabekeria, eta gainera bion aldetik, Hâkimek bi edalontziak berriro betetzeko eskatu baitio tabernanariari. Banoa, eta ez, oraingoan ez dut bizikleta ahazten, orain tabernatik korrika alde egin aurretik kristau madarikaturari zein traidore urde zikin eta alaenari bizikleta ipurzulotik sartzeko esaten diet.

III

Ikastolatik irten orduko nire anaiaren bila joango naiz ditxosozko bizikleta behingoz berreskuratzen lagun diezadan. Artean Hâkimenean ahaztu nuela esan diet etxekoei. Ez zait batere gustatzen anaiarengana joatea laguntza eske, baina nire azken aukera delakoan nago. Ez dut uste agure nazkante horrek nire anariari aurre egiteko adore izango duenik, are gutxiago adar jotzeko gogorik, Hâkimekin egin bezala. Yâssarrek eskaini adina ardo edango du, baina azken zurruta egin eta gero labana sakelatik lasai-lasai aterako eta *hâluf* madarikatu horri lepoa ziplo moztuko dio; baliteke apurtxo bat txoriburu eta etxekalte galanta izatea gure arrebak esan ohi bezala, sarritan ere arriskutsua, ogibide omen duen *hshishak* jota dagoenean, baina ez da batere makala nire anaia bere etxekoen alde egiterakoan!

–Alîim! Baina non zaude gaur, mutiko, Rifeko mendietan galduta edo?

Bada Iñakik goiz osoan atentzinoa deitzen didan hiruzpalaugarren aldia. Baita ikasturtean zehar Rifa nire kontura aipatzen duen enegarrena ere. Kopetaraino nauka gure irakasle superjator eta superenteratuak Rifeko kontuaz. Badirudi ia urtero hara oporretan joaten dela, goitik behera ezagutu eta lagun pila duela, hango gauzak ikaragarri maite dituela, besteak beste edo bereziki, ni bezalako ustezko *tarifit*dunak, geurea edo euskara bezalako hizkuntza txiki, biziki bitxia eta agian ere hurkoa den aldetik, noski.

–Nik ez dut *tarifitez* egiten, ni Nadorrekoa naiz, eta bertan ia denok *darijaz* egiten dugu, mendietatik etorritako nekazariak izan ezik. Gurean amak bakarrik egin ohi du amandrearekin.

Ez zaio inporta, hemen, Euskal Herrian, antzeko hizkuntza egoera berezi edota diglosiko ez dakit zer arraio badagoela azaldu, eta atoan beti galdetzen dit nola gure herriko jatorrizko hizkuntza ikasi nahi ez dudan hain iaioa izanda, zeren eta hona heldu baino lehenago gure iparraldeko *darijaz*, eskolako frantsesaz edota paraboliketako kirol eta kulebroiei esker gazteleraz banekizkien, eta badira bi urte ikastolara sartu nintzela eta euskaraz zein ingelesaz, eta baita, Hâkimi esker, *fusah* edo Al-Jazzirako arabieraren apurraz ere, egia esan hitz bakan batzuk eta zenbait esaldi bakar-bakarrik, polito moldatzen naizen, gure herriko edozein zokotan saltzaile izateko ezin aproposago.

–Zer dela eta, eta batez ere, zertarako ni ez baldin banaiz inoiz Rifeko mendietara bueltatuko, bertan zeharo ezezagun ditugun senitartekoei bisita egiteko?

Badakit nik halako erantzun honek betiere harri eta zur uzten duela, niri euskara edo geurea bezalako jatorrizko hizkuntza baten ezagutzak eta, batez ere, bere biziraupenak zernolako garrantzia duten azaltzarren berebiziko ahaleginetan saiatzen dena. Eta hau guztia klase erdian eta ni bezalako ikastolakume guztiok euskararekiko dugun betekizuna behin eta berriro gogora dezagun.

–Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik...

Baina nola azaldu nire irakasle jator eta txit atsegin honi gure amak amandrearekin *darijaz* mintzatzea guztiz nahiago lukeela, *darija* baita Nadorreko jende gehienarekin hitz egiteko txikitik ikasi egin zuen kaleko hizkuntza, bestea, ordea, eta gehiena jota, sutondokoa bakar-bakarrik, bere ama gaixoak beste nekazari eskolagabekoekin zein mendiko ahuntzekin erabiltzen duen basa-hizkera ulertezina.

–Euskararik gabe ez dago Euskal Herririk.

Baliteke, eta, hori dela eta, gurea bezalako ikastolak, ulertzen dut, eta gure arrebak –hona etorri eta gero *darijaz* oso txitean-pitean eta ia beti amandrearekin egiten duena hain zuzen ere– ondotxo aholkatu zigunez hemen ondo bizitzeko edota etorkizunean aukera handiagoak izateko ezinbestekoa, horregatik sartu ninduten auzokoan gure hainbat herkidex ez egin bezala, beharbada gaztelera lehenbiziko halabeharrezko helmuga dutelako, hori baita ikastolatik at edonon egiten den hizkuntza ia bakarra.

–Alfimgandik ikasi behar genuke...

Gorroto diot lñakiri klaseko guztion aurrean euskareriko atxikimenduaren eredu jartzen nauenean, batez ere euren jarrera motela eta askotan ere kontrakoa den aldetik. Euskara oso gogoko dut, asko gustatzen zait gaztelera zein frantsesaren aldean guztiz bestelakoa baita, eta etxean egiten dugun *darija* bezain ezberdina eta bitxia. Esan didate hemengo jatorrizko hizkuntza dela, behinola hiri honetan egiten zena bederen, aspalditik berpizten ari direna jo eta ke gurea bezalako ikastolen bitartez, eta gaur egun, areago etorkizunean diotenez, edozein lanpostu eskuratzeko ezinbesteko izango den hizkuntza. Nik ordea klasean bertan bakarrik egin ohi dut euskaraz eta gehienetan irakasleekin edota oso noizik behin ere ikaslagunekin baratzean, batez ere irakasleek euskara sustatzeko ekitaldiak antolatzen dituztenean. Euskara gogoko dut, bai, baina ikastolatik irten orduko erdarara jotzen dut nire aurrean zenbait ikaslagun euskaraz barra-barra ari izan arren, ez dut inola ere berriro *euskomoro* deitzea nahi, hau da, aspaldi aurpegiara bota bezala ikaslagun batzuegana ondoratu nintzela hitz eta pitz.

–Alím, etorriko al zara gaur arratsaldean Landatxora?

Noiz edo noiz auzoko ikaslagun batzuek eurekin Alde Zaharraren goiparteko parketxoan futbitoan egiteko gonbidatzen naute. Nik esango taldeak osatzeko behar nautela, baina tira, noiz edo noiz ere gogoko dut Mâred ez den txoriburu batekin jolas egitea, edo gutxien-gutxienik bera bezain zoratuta ez dagoen norbaitekin arratsaldea pasatzea.

–Ezin naiz, nire anaia topatu beharrean nago.

Etxean, jakina, ez dago galdetzekorik, nire anaia ohetik jaiki orduko etxetik ospa egin eta ez da gau erdira arte itzultzen, itzultzekotan noski. Ez naiz, beraz, etxetik pasatuko Yâssezrez galdezka. Badakit ondo baino hobeto behar dudan erantzunaren ordezkari amak nire zorioneko bizikletaren kontura aztoratuko nauela. Jakin badakit Yâssezrek egun osoan gure auzoko tabernetan iragan ohi duela, potrojorran ala auskalo zeren jorran, ez da nire arazoa, agian gure amarena, beti Yâssezren nagikeriaz kexaka ari baita, gutxienez harik eta honek lukainka hutsa den bere mezulari lan autonomoaren leloa behin berriro gogoratu eta azken egunetan uzteko lan honi esker irabazitako diru mordoa eskura luzatzen dion arte, baina oraingoz nirea ez. Hori dela eta, gure etxea dagoen muinoaz bestalderantz abiatzen naiz nire arrebaren bila, Yâssez eta bere ezpaleko lagunak joan ohi diren txiriboga txikirri eta ilunetara zuzen-zuzen jo beharrean, ez baitut inola ere haietako batera behin sartuta eta nire anaia ez topatutakoan bertako jendilaje beti susmagarri edo mozkorrak niri adar joka hastea, edo are okerrago, Espainako guardi zibil zein polizia nazional guztiengandik ihesi banindoa bezala jokatzea, hots, ni bezalako *morito* bat hor nonbait erdi galduta ikustean behin gehiagotan gertatu zaidana. Fatimak Pellejeria kale barreneko jauregi baten oinazpian dagoen ileapaindegi batean lan egiten du. Akademiatik irten eta gero, hamaika lekutan lan egin du, betiere hilabeteko kontratuean edota antzerakoak, hau da, aurreneko soldata jaso orduko dei egin arte eskerrak ematen dizkiotenak, baina azkeneko honetan bada aspaldi inork dei egin arte esaten ez diola. Badirudi ez duela inolako kexarik jaso bezeroei ileetatik oso gogor teink egiteagatik zein hauetako baten soineko izugarri dotore eta eksklusiboa tintez zikindu izanagatik. Bestalde, ez da harrizkoa nire arreba jabearekin primeran konpontzea, Mikel oso tipo jatorra baita, oso tipo bitxia egia esan, ikaragarri kontakatilu et keinularia, edonor irriparre luze eta goxo batez abegitsu hartzen duena bere ileapaindegian. Gainera, Mikel bera bezain bitxia eta areago exotiko den guztiak liluratzen du, eta nire ustez nire arreba oso exotikotzat hartzen du, berak guztiz kontrakoa emateko ahalegin itzelak egin arren. Mikeli entzun diot behin gehiagotan nire arrebari Fatimaren deitu beharrean Xerezade esatea, nire arreba gaixoak Xerezade izen

xelebre hori norena den ez jakin arren, nik uste Mikelekin aspaldi lan egin zuen beste neska marokoar baten izena delakoan dagoela, batez ere nire arrebak izen hori entzun orduko berehala sudurra zimurtzen du-eta. Nik, aldiz, badakit nahiko ondo zein den delako Xerezade hori, nola ez, beti bezala Hâkimek txukun- txukun azalduta.

–Zergatik eta, batez ere, zertarako ari zara gizagaldu horren atzetik?

Ezin diot inola ere esan Yâserrek bera oparitutako bizikleta berreskuratzen laguntzea nahi dudarik.

–Ez al duzu ikastekorik? Nik dakidala ez zaizu ezer galdu zure anaiarenean –ebatzi du Fatimak eskuko lehorgailua amatatu eta gero.

Jakina ezetz, galdutako bakarra Flor de Lisen utzi nuena omen da, horregatik nire anaiaren laguntza beharrezkoa dut, bestela ez naiz inoiz eta inola taberna zikin eta ilun horretara bueltatzera ausartuko, ez baitut nahi agure tripontzi alu horrek nire kontura berriro adar joka hastea.

–Zuk badakizu nik bezain ondo zure anaia etxekalte eta astakirten hori beti firin-faran dabilela, baina nonbait topatzekotan bere lagun Ahmeden tabernan ote, ala agian ere Antzara Enparantzako zizeiluetan.

Nire arrebak eskuko lehorgailua berriro ixiotzeko keinua egin du eta nik badakit erdi hutsik dagoen ileapaindegi horretan soberan nagoela, bertatik ospa egin behar dudala albait arinen bere ustez eta batez ere bere gusturako exotikoegia naizen aldetik.

–Zer dela eta ez zaude zure lagun Mâred horrekin jolasean?

Arrebaren galdera melela nire bizkar atzean erantzuteke utzita Pellejeria kalean gorantz noa Abadegaien Kale kantoi labainetik Antzararen Enparantzaraino jaitsi asmoz. Ez dut dudarik, Yâserekin bila beste zulo zikin eta ilun batera sartu aurretik, eguna potrojorran edo baten batek daki zertan igaro ohi duen enparantzaz saiatu nahiago dut; hori da behintzat Fatimak behin baino gehiagotan etxean eta aparteko saminez leporatu egin diona nik zer esan gura zuen zehatz-mehatz jakin barik. Delako enparantzaz eta pare bat kobrezko antzara goiko partean borrokan ala txortan dituen iturri ponpox alderaino heldutakoan parkea inguratzen zuten lertxunen azpian dauden zizeiluetan ikuskatzen hasi naiz. Atzo hainbeste aztoratu egin ninduen agurea bezalako jubilatutako eta ni bezalako marokiar zein

senegalesez gainezka dago, baina Yâserrren arrastorik ez. Alahri esker zizeiluotako batean nire anaiaren aspaldiko lagun bat ezagutu dut, harekin egunero zizeiluaren bizkar gainean eserita berbetan zein olgetan egoten den gure herriko mutiko handikote bat eta dirudienez ezta oso azkarra ere, betiere Fatimaren mihi gaiztoari kasu eginez.

–*La bas`alík*, ikusi al duzu nire anaia Yâserr?

–*La bas el-hámdulil.lah*, zu al zara Yâserrren anaia txiker famatua? Ene Jainkoa, bai koskortu zarela, aspaldi ikusi zintudan zure amarenean eta doi-doi ez zaitut ezagutzen.

–Nire anaiaren laguntza behar dut.

–Zer dela eta?

Ez nion tutik ere esan behar, baina gizalegeak, areago guretarrekikoa izanda, behartu egin nuen. Orain Ahmedek badaki agure alproja eta duda izpirik gabe arrazista ere batek bizikleta ostu egin didala.

–Zure anaia bere lagun oso garrantzitsu batzuekin tratuetan dabil. Baina, ez kezkatu, nik neuk lagunduko zaitut, gaur behintzat ez dut beste egitekorik.

–Lasai, ez da beharrezkoa, ni neu konponduko naiz.

–Tira ba, nork egingo ote dio kasu zu bezalako umemoko bati?

Noski, ez diot arrapostu egin nahi gogoan dudana: eta nork egingo ote dit kasu zu bezalako arlote batekin nire aldamenean? Gauzak horrela, eta aiko-maikorik gabe Ahmed ez mintzearren, nire alboan etengabe txutxumuka daroat Flor de Lis tabernaraino.

–Berriri diotsut, Ahmed, ez da beharrezkoa zuk laguntzea, ni ondo baino hobeto konpon...

Nik bukatu aurretik Ahmedek bazuen tabernako atea zabaldua eta begi-keinu lasaigarri zein konplitze izan nahi zuen irribarre batez ez kezkatzeko erregututakoan barneratzen da. Kosta egin zait sartzea, orain bai, aiko-maiko egon naiz atetik sartu baino lehen, baina azkenean barra aurreraino heldu naiz eta bertan Ahmed tabernariarekin eztabaidan topatu dut.

–Esan badiot zure lagun honi gaur Gabriel ikusi ez dudala, ez dakidala ezer zure ditzosozko bizikletaz. Gabrielelek bizkar gainean hartu eta zuri itzultzeko aukera izan arte bere etxean gordeko duela esan zidan.

–Zer dela eta sinestu behar dizugu? –badirudi Ahmedek zer edo zer esateko premia larria zuela, eta gainera ahal izan duen modurik zakarrenez tabernari gaixoa nola edo hala ikartzeko asmoz edo.

–Egia borobila delako eta kito. Baina, nor da alproja hau?

–Nik nire bizikleta berreskuratu nahi dut soil-soilik.

–Zoaz ba bere bila...

–Nora?

–Beitu, aspaldi ezagutzen dut Gabriel, baina ez dakit zehatz-mehatz non bizi den. Badakizu, hemen bezeroek ez dizute euren bizi osoa kontatu ohi, lada galdetze baten batek dakien.

–Hori, zoaz galdetzera, bestela ez gara hemendik mugituko zure lagun horren helbidea jakin arte –

Ahmed berriro hanka sartzeko prest. Tabernariak barra barrenean eta guri begira marmar ari den bezero bikote batengana jo egin du. Nik Ahmedek bere languntza ezinbestekoa eskertzeko komeria egin eta faborez bertan behera bakarrik uzteko ez dakit zenbat bider erregutu diot.

–Aizu mutil, ez izan hain tentela, ala uste al duzu ni ez egonda *nasri* zerritzar orrek jaramonik egingo zizula? –

Ahmed gaixoa, lerdo garbia izateaz gain putzontzia ere bai. Tabernaria guganantz pozarren datorrela ikusi orduko Gabriel delako hori gutxienez non bizi den badakiela asmatzen dut.

–Esan didate gure lagun Gabriel Petrineria kaleko bosgarren atarian bizi egin dela betidanik. Egia esan, urte askoan bertako auzoko elkartaren burua izan zen.

Honezkero ez dut, beraz, zertaz kezkatu beharrik, bertara joan, boskarren atari horretan nire agure petralaren izen- abizenak bilatu eta txirrina jo, gero gerokoa.

–Gabriel Ruiz Payueta dituzu bere izen-abizenak, esan badizut urte askoan oso ezaguna izan dela auzo osoan.

–Milesker guzt...

Gizalegeak agindu bezala erantzuteko parada eman aurretik, eta nik uste Ahmed tabernatik ziztu batean irteten ikusi orduko, tabernariak hurrera nadila arrenka eskatu eta ozta- ozta belarrira esan dit:

–Eta mesedez, ez zaitetze hemendik itzuli, ez dut inolako istilurik nahi zuen moduko jendearekin.

Petrineria kalerantz noa arin-arin Erremendari kaletik Ainurdin kantoian gora eta Ahmed hitzontzi eta lehen baino putzontziagoa nire alboan. Tabernakoaz gero niri Gabriel Ruiz jaunaren etxeraino laguntzea inola ere beharrezkoa ez duela behin eta berriro esateari utzi diot. Alper-alperrik, gure Ahmedek zeharo asaldaturik ematen du. Badirudi ere hona iritsi zenez geroztik gozaten ari den aurreneko bizipen kitzikagarria dela. Bestela ezin dut ulertu zergatik hain pozik, kalakari eta ia kantari ere doan berari berez bost axola behar dion asunto baten kontura. Nik uste hona iritsi zenetik bere burua baliagarri nabarmentzen duen aurreneko aldia ere dela.

–Behin batean Melillan...

–Faborez, goazen azkar, dagoeneko etxean egon behar nuen-eta.

–Hiria ia-ia urpetik ingurutu behar izan genuen Marokora sartu ahal izateko zama bizkar gainean generamala...

Petrineria kalearen goi parteko etxeak goitik behera berriztatuak daude aspalditik. Haietariko batzuk ere zeharo eraiki berriak dira lehenagokoen egitura gutxi gora behera errespetatuz. Edonola ere, azaltzen diren etxaldeen gure auzokoak baino hamaika aldiz gogoargiago ematen dute, gehien-gehienak kolore bizi eta zoliez estalita baitaude; orain dela bi urte udako oporretan gure Nadorreko gure osaba Abd- el-Krimek erakutsi zizkidan Chauen aldeko etxe kareztatu koloretsuak gogoratzen dizkirate. Honez gain, eta etxaldeetan zein erreskadan agertzen diren denda xume baina dotoretan –

ezin asmatu zer dela eta hainbeste antiguedade, liburu edota artisautza denda—erreparatzeari apurtxo bat gehiago ekiten diogu, beherala kontura gaitetzke hemengo etxebizitzak gure auzokoen aldean guztiz txukunagoak eta batik bat zainduagoak daudela; edo bestela esanda, oraindio ez dut argindarraren kable purtzil bat ere hormatik zintzilik ikusi. Diru kontu hutsa, besterik ez. Eta gure aldamenetik pasa eta guri uzkur edota erronkari begira ari den jendilajearen piura ikustekotan ezin ageriagoa da kale honetan behintzat, eta gurea bezain meharra, ainubea eta ohor har Ertaroko eite erdipurdikoa izanda ere, gure moduko etorkin asko bizi ez dela, gehiena jota nire anaia Yâs-serrekin lan egiten duen handi-mandiren bat.

—Horra hor boskarren zenbakia.

Hain noraezean nenbilen gogoeta burugabeetan ezen Andre Mari Baltzaren plazaraino amildu naizen. Oraingoan bai, azkenean berari esker topatu dugu zorioneko ataria, eta ezinbestez eskertu behar diot Ahmed kontakatilu memeloari.

—Baina, baina, hemen ez da inolako izen-abizenik agertzen —garrasi egin dut ia nire onetik zeharo irtenda, irrikaz bila ari naizena behin topatu eta gero oraindio beste oztopo bat dagoela kausitzea gehien izorratzen nauen ustekabea baita.

—Tira ba, banan-banan hots egin behar izango dugu gure gizona azaldu arte.

Nire ustekabe tentelaren erruz ezin naiz ohartu Ahmed koitadua aspaldi ihes eginda zela kalean gora antxintxika. Izan ere, jiratu naizenean nire bizkar atzean topatu dudana ez ziren Ahmeden kankailua edota bere irribarre ergela, bi udaltzainen urdin pitufoa eta euren kasuan guztiz okerrak omen ziren irribarreak baino.

IV

Atzo arratsaldekoa demasa izan zen, benetan zoratzeko modukoa. Udaltzainek, datuak eskatu eta euren arauk-edo eskatu bezala, ez sinestuena egin eta gero, nik emandako helbideraino lagundu ziguten. Jainkoari esker, gure amak inoiz ez bezala aurre egin zien, hau da, inoiz baino nahigabetuagorik.

–Badaukat, noski baietz, jaunak, ni naiz Egoitza Baimen horren argazkian azaltzen den andrea, badira hamar urte hemen bizi garela eta oraindio zorioneko baimenaz gora eta behera. Eta jakina, nire seme hau, ia lepotik oratuta arrastaka nakartena, baimenean bertan azaltzen den Alim txikia da. Zer egin du oraingoan?

–Arazoa, emakume, ez da egin duena, egiteko zuena baizik.

–Bai noski, agente jauna, baina badakigu ezer egin ez duena, eta baita zer egingo zuen inoiz jakingo ez dugula ere –nire arrebaren ezusteko agerpenak udaltzainen bizkar artetik ikaragarri poztu egin ninduen aspaldiko partez. –Portzierto, nahiz eta orrazkera guztiz bestelakoa izan, ni naiz nortasun agiri-nazional honen argazkikoa. Badakizue, badaezapada duda-mudatan zaudete.

–Zure semearekin zegoen gizona korrika irten zen gu ikusi orduko –udaltzainek euren presentzia nire lepotik oratuta nolabait justifikatzearen, eta, jakina, nire arrebaren hitzei beti muzin eginez.

–Baina nik tipo hori ez nuen ezertaz ezagutzen. Kanean elkar topatu, hona iritsi berria zela esan eta biok marokiarrak ginen aldetik lagun batzuen helbidea bilatzen laguntzeko erregutu egin zidan –oraindik ez dakit nola otu zitzaidan hori guztia ia arrapaladan.

–Eta guk sinestu behar? –udaltzainek euren ofizioari gogor eutsiz.

–Noski baietz, ala ez al zarete konturatzen hamar urteko umemoko bat dela? –nire arrebak adierazi egin nahi zien ia bere onetik irtenda– Zer uste al duzue Bin Ladenen nontzeberri bat dela edo?

–Ez da hori, baina bagaude aspaldi susmo txarrak hartuta bere adineko beste moro...

–Barkatu? –Nire arrebari marraztu egin zitzaion irribarre okerra bere harridura aurpegia baino zabalagoa zela nabari zen.

–Ezer ere ez, baina hurrengoan kontuz ibili norekin zabilzan tratutan, ezin da inoiz jakin...

Udaltzainek euren afizioari sinesgogor eutsiz sudurra mehatxu gisa zimurtu eta gizalegezko agurrik ezin hotzenak eginez ospa egin zuten, gure amari eman beharreko xehetasunak emateko premia utziz.

–Hoa oraintxe bertan hire lehengusu horren dendaraino zorioneko bizikleta hori biltzeko!

Zorionez gure amak ere udaltzanei kontatutakoa sinestu edo sinestu gurago izan zuen, hau da, Hakimen dendara nindoala bertan utzitako bizikleta hartzeko ezertaz ezagutzen ez nuen tipo arraro horrekin topo egin nuela eta gero gerokoa. Nire arreba errukibera, aldiz, lehenago aurpegian marrazturik zuen irribarre zabala irri-karkaila bilakatzekotan egon zen.

–Eta faborez, oraingo honetan itzul hadi etxera ilundu baino lehenago.

la ez nintzen gauerdira arte bueltatu. Eta jakina, errua ez zen nirea, ezta behin berriro laguntza eske joan nintzaion Hakimena ere. Gaixoak nahikoa izan zuen Petrineria kaleko atari alu hartaraino laguntzearekin. Kostata, haren dendatxoan azaldu egin nintzenean ikusi ere ez ninduen nahi izan here negun zorioneko tarberna hartan gertatu izanagatik.

–Delako bizikleta petral hori ipurzulotik sartzeko agindu zenigun, gogoratzen?

Noski baietz, eta horrexegatik ere berriro bereganatua nintzen zeharo burumakur, bera bezalako gizon jakitun eta gizabidetsu baten laguntza ezinbestekotzat jotzen nuelako nire bizikleta petrala behingoz berreskuratzeke.

–Ez nago ziur atari horretan bizi den, eta ez dakit ere nola jokatu bekoz-beko nire bizikleta petrala ipurtzulotik sartzeko aholkua eman nion tipo batekin.

Hakimek etengabean gurtzen duen jainkoari esker barre egin eta tarteka marteka nire anaia Yâsser gaiztoa bezain egoskorra izaten naizela bota eta gero, dendako atea giltzatu, eta Petrineria kalerantz abiatu ginen sekula baino adiskideagoturik.

–Ea oraingoan apal-apalik azaltzen zaren agure horren aurrean; gure Koranek dio: “Urrikalgarriaren morroiak lurrera apal-apalik doaz, eta ikasgabeek irain egiten dietenean haiek erantzun: Bego bakea!” (Koran 25:63)

Zorionez ez genuen Petrineria kaleko atariko txirrin guztiak banan-banan jo behar, halabeharrez aztoratu egin genuen lehenengo auzokoak, eta tarte luze batez hausnarrean egin eta gero, Ruiz Payueta jaun ezaguna laugarren pisuan bizi omen zela erantzun baitzigun. Eskerrak bihotz-bihotzez eman genion eroan oneko auzoko horri, eta berak esandako pisuko txirrina jotzean atariko atea zabaldu egin ziguten tutik ere esan gabe. Goraino igo ginen bart nire bizikleta kutunaz etxera pozik eta kantari bueltatuko nintzelakoan.

–Izugarri sentitzen dut, lagunok, baina dagoeneko Ruiz Payueta jauna ez da hemen bizi, pisu hau saldu eta Alde Zaharreko beste batera bizitzera joan omen zen bere emaztearekin.

Gure hutsopil honen berri ematen zigun emakumea hogeita hamar urte inguruko neska kirru luzenga eta argal bat zen. Badirudi benetan atsekabeturik azaldu berri zigunagatik, bere errua, eta auskako zer dela eta, ote zelakoan. Guk, ordea, ezezko keinuak egiteari ekiten genion bera nola edo hala lasaitzearren; Hâkimek berak hamaika bider esan bezala, esker onekoa izatea lege izan behar dugu-eta.

–Ba al dakizu bederen Ruiz jauna non bizi den egun? –Hâkimek galdetu egin zion esku ahurrak ia elkarturik.

–Ideiarik ez, hobe dugu gure senarrari galdetzea halako kontuetan ni baino jantziagoa da-eta. Sar zaitetze barrura, faborez.

Ez dakit emakumea konturatu egin zen ala ez, baina bere eskeintzak, edo, hobeto esanda, aginduak, harri eta zur utzi egin gintuen. Ez zen, ez, batere normala bera bezalako *nasri* batek guztiz ezezagun, arrotz, zituen bi etorkin magrebiar etxe barruraino sartzeko eskatzea. Ez genekien nola jo, noraino komeni zitzaigun gehiegizko konfiantza horri gizalegez eustea ala, bestalde, gure senak orduantxe eskatzen zigun zuhurtziari men egitea *nasriekin* behin baino gehiagotan egon ohi diren balizko gaizki ulertuak baztertzearen.

–Baina, faborez, ez geratu hor ate ondoan, sar zaitetze behingoz. Oraintxe bertan hots egingo diot Mikeli, ziur nago berak badakiela non bizi den zuen lagun hori.

Esan liteke emakumeak bere tximaluze eta ipurdi hezurtsuaren atzetik ia narrasean eraman gintuela egongelaraino. Horra hor zernolako sorpresa jaso egin genuen Marokon hain onetsiak ziren kulebroi egiptiarretan azaltzen ziren etxeetakoak bezalako gela batean sartzerakoan. Bazegoen *pufez*, alfombraz, tapitzez eta gure herrietako zokoetan turistentzat propio eginak saltzen diren esaldi koranikoak estalita dituzten plater urrekarek gainezka. Egongelatxoa berez, eta Alde Zaharreko pisuetan ohiko denez, izugarri txikia izanda ere, ia ez zen iltze bat ere kabitzen hainbeste kinkila turistiko artean, baina emakumeak erdian zegoen eta tea banatzeko mahai modura erabili omen zuten plater urrekara erraldoi baten inguruko *pufetan* esertzeko erregutu egin zigun.

–Harrituta? Nire senarra eta biok ekialdekoa den guztiaz maiteminduta gaude, horregatik egongelatxoa gure bidaietan erositako hainbat gauzarekin apaindu gura izan genuen hango giro bero eta atsegina nolabait sortzeko asmoz. Baina, faborez, eser zaitetze, Mikel bere bulegotxoan ari da ordenagailuaz gora eta behera, eta seguru asko ez dizue sartzen entzun.

Zuzen zegoen neska, bai noski, gu zeharo harrituta geunden eta neurri ttipi batean ere ikaragarri deseroso. Zer ote gara gu, bikote honen apainkeria berria? Tira ba, Hâkimek txorakeriarik ez esateko agindu zidan badaezpada. Gainera, gu lehen etorritako pasilo meharretik iristen ari zen Mikel delako hori.

–Aupa, mutilak, zer moduz? Mikel naiz. Naiarak esan dit lehengo jabeaz galdezka ari zaretela.

Badirudi inolako erantzunik eman beharrean ez geundela, gure begitarteak nahiko adierazgarriak zirene-eta.

–Oso tipo bitxia omen zen. Alde Zaharreko etxe gehien berriztapenaren kontrako auzo elkartearen burua izan zen urte askotan, eta bat-batean, egunetik egunera, den- dena bertan behera utzi, etxea saldu eta bere emaztearekin desagertu egin zen.

Aho zabalik geratu ginen halakorik inola ere espero ez genuenez gero. Desagertu? Non, nola, eta batez ere, zergatik?

–Pentsa ezazue, mutilok, urtetan auzo hau udalekoek inola eta ezer ere aldatzea nahi ez zuten auzokoetariko borrokalari sutsuena izandakoak buruzagi zuen elkarteari bizkarra eman zion inori

inolako xehetasunik ere esan gabe. Jakina, betiko lagunak zituenean elkartearikiko buruhausteeke zein hauen kontura emaztearekiko tirabireke bere onetik atera egin zutela zioten, bere jokabidea nola edo hala zuritzearren. Kontrakoeke edo gutxienez bere agente ahalguztiduna aspalditik gaitzesten zutenek, aldiz, etxea ordura arte etsai amorratuak zituenean etxegileetarikoko bati saldu egin ziola baiezteten dute.

Eta guri zer?, biok batera pentsatu omen genuenean elkarri begiratutakoan. Gu bizikleta baten bila gentozen soil-soilik, ni belazako haur gaixo bati ostutakoa, baliozko dudanean jostailu bakarra, nire senitarteko bateke, lanean jo eta ke, egunero izerdi patsetan eta gehienetan ere behar baino ordu gehiago sartu eta gero, erositakoa.

–Guk ez genuenean ezagutu, kontatu berri dizuedane guztia agentziakoek esane zigutene salmenta kontratua sinatzerakoane, jabea, behintzat, ez zen azaldu.

Eskerrak eta agurrak etengabe eta ateraino ematearekin batera ez zegoene, beraz, ezer gehiago entzun beharrik. Zoritxarrez, eta *puf* ipurdi matxuratzaille haietatik altxatzeko imintzoa egiterakoane emaztea berragertu zen erretilu bat eskuetan eta txilaba batez jantzita.

–Ezinez zarete joane gure te beltz goxoa dastatu gabe, badakizue, gureane ere hospitalitatea lege.

Ezinez sinisturik geunden Hákim eta biok horrene abegikorrek eta eskuzabalak zirene bi pepelerdo haiene aurreane. Nik uste, ez Hákim ez ni neu, ez ginela une hartaraxe arte gure mairutasunaren eragozpen gogorrez konturatuak.

–Esane bezala, zuene kultura osoa oso gogoko dugu. Orain dela urtebete Tindufeko kanpamentuetane egone ginen bertako GKE baten kideak garene aldetik. Zueke nongoak zarete?

Ez dakit hane esandane behar baino maltzurragoa naizene ala ez, baina nik uste Ipar Maroko aldekoak ginela esandakoane apurtxo bat edo lasaitu egin zirela.

–Orduane rifeñoak zarete. Ba al dakizue rifeñoak eta euskaldunak antzekotasun handiak ditugula, ia elkarrene ahaideak garela? –galdetu egin zigune bere emazteak erretilua mahaian utzi, eta tea bero galdatan edalontzi txiki eta pinpirindu batzuetane banatu eta gero, unibertsitateane historia irakaslea zela argitu egin zigune Mikel jatorrak.

Tira ba, zorioneko lege horren erruz *puf* madarikatuetan behin berriro hondoratu eta antzekotasun handi guztiok banan-banan irakatsi bitartean gela eskas hartako horma batean eskegita zeuden azpil turistiko haietariko batean idatzita zegoen atsotitz kuneiforme batean erreparatu egin nuen. Ia ezin nuen ezer ulertu, ez baitakit *al-fushaz*, hots, arabiera klasikoz, oso ondo irakurtzen; baina, Hâkimek ikusteko zein irakurtzeko egiten ari nintzen begi ahalegina ohartu orduko ahapeka eta *darijara* itzuli egin zidan.

– Espiatzen duenak gogoko ez duena entzun behar”.

V

–Aliiim, itzuli mesedez planeta honetara behingoz, ez duzula ezer entzun ikastordu osoan!

Doi-doi belarrira oihuka dudan Iñaki irakaslea da, klasea bukatu orduko nireganatu egin dena errieta egitera. Noski, gaixoak ezin izan du pairatu bere ikasle kutuna –eta, gutxi balitz bezala, zenbait alorretan gaituena ere bai– aspaldi hautatutakoaren arreta bere hitz jario adimentsu eta, batik bat, superjator eta hiperkontzenziatuari ikastordu osoan jaramonik egin ez izana.

–Baduzu problemarik etxean?

Lipar batez baietz erantzutekotan egon naiz. Problemarik? Jakina, nola ez, gurean beti, esan nahi dut, gure kastakoen artean problemak beti nagusi eta ugari. Niri dagokidanez arreba kale gorrian emagaldut, hots, nire kaleko neska senegalesekin lehian edo, anaia talde islamiko erradikal batean sartuta edonoiz eta edonon bere buruaz hamaika kilo lehergaiz eztanda egiteko irrikan, eta ama, nola ez, edateari emanda. Baina ez, erabat ernegaturik ari naiz aspaldi honetan mundu guztiarekin eta Iñaki koitaduak ez du ezeren errurik. Alderantziz, Iñaki nirekin beti ezin hobeki jokatu izan du. Izan ere, Iñaki superjator eta hiperkontzenziatuari esker ikastolan irauten dut, Mâredak ez bezala, ezertaz janzten ez zen aitzakiaz, nire irakasle ezen Mâreden antzera egun osoan kalean gora eta behera bizikletaz igaro bainezake.

–Nire arrebak oparitutako bizikleta ostu didate.

Espero bezala niri botatzeko gertu zuen errieta bertan behera utzi, eta hain gogoko duen gizalaguntzaile lanari ekiten dio Zubibarrieta jaunak, oraingoan gainera erabat asaldaturik ez dakit noren eraso faxista edo xenofoboa sufritu egin dudalakoan.

–Agure batek?

–Bai, non eta nola topatzekorik ez duen agure bat –eta ez galdetu nola edo zer dela eta, baina segituan asmatu egin nuen nire irakasle superjator eta hiperkontzentziatuari ordura arte bizikletaren kontura gertatutako osoa kontatzekotan atarramendu onik aterako nuela.

–Eneee, nik ondo baino hobeto ezagutzen dut tipo hori, Gabriel Ruiz Payueta jauna, nik neuk bota egin nuen gure auzo elkartetik!

Eta bat-batean, edo ezustean hobeto esanda, itxi berria nuen atea oraindik ordea oso argia ez den zirrikitu batetik berriro zabaltzen dakusat. Ez dakit nola, baina Iñaki irakasle superjatorra eta hiperkontzienziatua bitarteko izango dut agure madarikatu horrengana iristeko. Nire ustez, elkarre batetik botatzeko gauza izan baldin bazen, oraingoan Iñaki bezalako mutiko saiatu batek ez du bizikleta ziztrin bat berreskuratzeko arazo handirik izango. Edo bestela esanda, ez dut uste agure mozkor tripontzi hark nire irakasleari adarra jo egingo dionik, lehengoan Hâkim jakitun eta arrunt adeitsuari egin bezala.

–Harekin tupust egin eta gero bizikleta eskuetatik kendu egin zidan.

–Nola ez, Gabriel jauna oso tipo suminbera da, elkarrean zegoela egundoko ika-mikak izan nituen berarekin, udalekoek auzoarentzat antolaturiko berregituraketa planaren kontura.

–Barkatzeko eta guzti eskatu egin nion, baina berak...

–Gabriel jauna udalaren edozein esku sartzearen kontra azaltzen zen beti eta nire moduko auzokoez, osteraz, eta beti auzoaren nortasunari eutsiz, berrikuntzak hitzarmendu gura genituen, zenbait berrikuntza ezinbestekoa zelakoan.

–Ni bezalako etorkinak auzoa hondatzen ari ginela bota egin zidan...

–Zeeer?

Eskapatu egin zaidala uste dut. Ez nekien nire irakaslearen matraka nola moztu, eta otu zaidan bakarra gezur maltzur bat botatzea izan da. Zer esanik ez, dagoeneko banago zeharo damaturik.

–Ni bezalako haur bihurriak...

–Bai zera, ondotxo ezagutzen dut nik alproja hori, ziur nago zu bezalako mairu bihurriak adierazi nahi zuela.

–Baina kontutan hartu behar duzu bere gainera oldartu berria nintzela.

–Eta zer? Hori al da motibo nahikoa inor iraintzeko kanpoko izateagatik?

–Ezet, hurrengoan adiago ibiltzeko bakarrik eskatu egin zidan.

–Eta bizikleta?

–Ez dakit, bertan behera utzi eta korrika irten nintzen.

–Noski, badaezpada, nik ere halako tipo batengadik ihes egingo nukeen. Baina, ez kezkatu, nik neuk lagunduko dizut zure bizikleta hori berreskuratzen.

–Ez da beharrezkoa.

–Nire betebeharra da zure irakaslea eta baita auzoko ordezkatzailerak ere naizen aldetik.

Ezin ageriagoa da sarri baino sarriago berritsuegia naizela, behin berbetan hasi ezker burua behar ez bezala eta edozein txorakeriaren kontura berotzen zaidala, eta beti hanka sartzeko arriskutan. Falta zait, duda izpirik gabe, Hâkimen zuhurtzia eta, batez ere, bere atsotitzezko ontzia, besteak beste oraingo kinka hau saihesten ondo baino hobeto irakatsiko zidakeena.

–Nik ere ez dakit non bizi den astakirten nazkante hori, baina, lasai egon, mutil, galde egingo dugu ea elkarteko baten batek dakien. Esan bezala, gure Gabriel Ruiz Payueta jauna oso ezaguna omen zen auzo osoan.

–Tira ba, ez da beharrez...

–Baietz ba, ezin ditugu halako eraso xenofoboak inola ere toleratu.

Berehala konturatu egin naiz hanka sartze handi bat egitekotan nagoela. Nire irakaske superjatorra eta hiperkontzienziatua den-dena bere onetik ateratzen ari dela nire erruz. Deskuidatu ezker huts ikaragarri bat egingo lukeela entzungor astapotro honek, inoiz eta inola lapurtu ez eta, are gutxiago, kanpoko izateagatik iraindu ez nauen agure xume baten kontra oldartuz.

–Agian topatu egin nuen taberna berberera bueltatuko da.

–Eta agian ez, agian zuri bizikleta lapurtu eta gero dagoeneko saldu egin badu, eta agian ere gaizkile guztiak ez dira krimenaren lekura itzultzen.

–Edonola ere ni hara joango naiz bera agertu arte zain egotearren.

–Ezta pentsatu ere, zeren eta zuzen baldin bazaude eta harekin topo egiten baldin baduzu, nola konbentzituko duzu bizikleta itzul diezazun?

–Nire anaiari laguntzeko eskatuko diot.

Ez dakit zer dela eta baina bat-batean nire irakaslearen mugagabeko begiratu errukiorrak aitzo baten modura goitik behera xehaka zeharkatzen nauela ohartzen dut.

–Egia esango dizut, ez dut zure anaia hori behar bezala ezagutzen, baina banago entzuna behintzat oso gizabidetsua ez dela, nahikoa erresuminkorra baina.

–Nire anaia maiteak ez du nik bezala inolako eskolarik jaso, beti kalean bizi egin da, bai Marokokoetan, bai hemengoetan, ez da beraz oso tipo gizalegetsua, baina bai ordea kalelegetsua.

–Hain zuzen ere gutxien behar duzuna inolako auzitan ez sartzeko.

–Baina nire anaia da eta gurean norberaren arazoak familia osoarenak dira.

–Baliteke zure herrian, baina hemen gauzak oso bestelakoak izaten dira, hemen ez gaude Ertaroan zuzenbide estatu batean baizik. Gainera, eta zure irakaslea naizen aldetik, ezin dut halako afera bat alfanjea lege duen morroi baten esku utzi.

–Berak bizikleta oparitu zidan, berak berreskuratuko dit.

–Eta orduan zuri lagundu nahi izateagatik zure anaiari kalte egingo diozu.

Aitortu beharrean nago ez dakidala oso zehatz-mehatz nire irakasle superjator eta hiperkontzenziatu hau zertaz ari den, zer adierazi nahi didan edo zer demontre entzun ote duen nire anaiaren kontura.

Jakin badakit, ordea, kasu egitekotan eta oraingoz nire bizikleta gorde bakarrik egin duen agure tripontzia errudun ez den nahaspila batean sartuko dudala ustekabean. Hori dela eta, eta Iñaki Zubibarrieta jaunak ikastolako ateraino ia arrastaka naramala, eta batez ere kalean oraindik hitz eta pitz ari diren ikaskideak dakusatzadala, banago kopetaraino gure irakasle superjator eta hiperkontzenziatuaren ume kutuna, mairutxo ikaragarri azkarra eta saiatua, hots, guztiontzat eredu, izateaz, atzo arratsaldean Ahmed baldarrak udaltzainen laguntza eskergaitzatik ihes egiteko erabili zuen metodoa gogora ekarri berri dut. Ziztu bizian libratu naiz nire irakaslearen esku zein asmo onez.

VI

Beldurak nago nire irakasle superjator eta hiperkontzientziatuak nire atzetik segika ari den. Badaezpada etxerantzeko bidea hartu beharrean ikastolatik kalean behera abiatu naiz antxitxiketan. Galduko naiz goi parteko karriketan, hau da, Alde Zaharreko kalerik itxurosoenetan, hiriaren zabalgunek are itxurosoagora begira daudenak, orain ez dela asko hondatzeaz zeuden etxeak eraberritu eta garbitu eta gero txukun-txukun, panpox-panpox, faltsu-faltsu paratu direnak, hots, turisten gusturako ezin propioago, eta baita etxe saltzaileentzat ezin amuzkiagoak ere. Eta zer esan aspaldi honetan hiri modernotik hona ia-ia tropelean bizitzera iristen diren hiritar gehienbat superjator eta maiz ere hiperkontzientzietuei buruz? Badakit nik ere Zubibarrieta jauna Ganibeteria kalearen sarbidean bizi dela, hain zuzen ere, normalean dendatxo atsegin eta bitxiez, taberna erabat pijo-itxuraldatuez eta fatxada ezin koloretsuagoez josita dauden kaleotan lasai moduan ibili ezkerok harekin ezustean topo egiteko arrisku handia dudala. Ez dit axoka, ez behintzat Iñaki irakaslea nire behekaldeko kalean nire bila gora eta behera begitantzen zaidala, hau da, bertakoek oso gogo gaiztoz deitzen dioten Zoko Berriko edozein bazterretan zelatan. Nolanahi ere, kale guztietako kutunena den Ganibeteria kaletik arin-arin noala sarreraino iritsi berri naiz.

Hemendik aurrera ezer galdu ez zaidan zabalgunek dezimonokikoa zein hiri modernoko auzoak, maizenik mairu susmagarri bat bakar-bakarrik naizen hirian. Bestela gogora ekarri besterik ez dut egin behar aspaldi gertatu zitzaiguna Mâred eta bioi hirian zehar bizikletaz irteten erabaki genuen egunean. Nik banekien –gehienbat Iñaki irakasleak esanda garraiobide ekologiko-alternatiboek erabilpena sustatzeko berak antolatutako kanpainari eutsi nahian-, hirian zehar bizikletetarako propio egindako hamaika bidegorriak deritzatenak- zeudela, gure hiria delako bidegorrien hedapen handiagatik oso ezaguna eta gorai patua zela. Aitortu ere aitortu beharrean nago ikaragarri kostatu zitzaidala Mâred gure auzotik haraino joateko konbenzitzea, berak dioenez gure auzo aldapetsuan bakarrik gustora sentitzen da-eta, bertako zoko eta zirrikutu guzti-guztiak ezin hobeto ezagutzen dituelakoan. Baina bidegorri famatuok nola edo hala erabili behar genituen gurea ere omen zen hiri txukun, eder eta gogor horretatik han hemenka ibiltzearen. Hori zela eta Mâred ozta-ozta arrastaka atera egin nuen hamaika mende pasa eta gero nire fedekook ezari-ezarian irabazi eta berriro gotorleku bilakatu dugun alde zahar honetatik.

–Ikusten? Nahi adina bide dugu bizikletaz lasai moduan ibiltzeko.

–Bai noski, baina hau guztiau oso laua da, nik aldapetan gora eta behera ibili gurago dut.

Horrelakoa da nire lagun Mâred, beti kabitik edo gutxienez haren eremutik ezin irtenik dabilena basapiztien modura, ez du leku berriak ikusteko inolako gogorik, ezagun edo gertu duen oro maite du eta gainerako guztia etsai, auzontzia esango diogu, beraz, gure Mâred koitaduari. Egun hartan, ordea, eta geroago futbolean aritzeko asmoz hiri inguruko berdegune baterantz gindoazela, erdialdea zeharkatzen duen bidegorriotako batetik, joandako mendekoa omen den lorategi izugarri ponpoxo batera ailegatutakoan, udaltzaingoaren kotxe patruila bat gure parean jarri egin zen.

–Geldi hor, mutilak, nondik atera egin dituzue txirrinduok?

Nondik ba, nire anaiak herenegun oparitutakoa zen, luzaro erosteko arrenka egon ostean, berak aurkitutako bizikletarik politena, zaluena, berriena, hau da, Yâserrek aspalditik agindutakoa, niretzat gure Marokoko herria uzteko eta hona etortzeko motibo ia bakarra, hain zuzen ere.

–Zer uste duzue, gu atzo goizekoak garela?

Zorionez, komisaldegira eraman beharrean nire etxeraino joateko konbentzitu egin nituen bertan nire amari Yâserrek emandako bizikletaren ordainagiria –orduan badaezpada esan zuen nire anaiak, eta nabarmen da ezin zuzenago jo egin zuela, udaltzainekiko gorabeheretan nik baino hamaika aldiz saiatuagoa zen nire anaiak- erakus ziezaien.

–Ondo ba, baina hurrengoan ez joan lasterka.

Nola ez egin men udaltzainei aginduetara. Niri behintzat ez zitzaidan batere kostatuko, ez baitut oso gogoko bizikletaz arinegi joatea. Ezinbestean, oso baldarra naiz eta. Mârek, jakina, inoiz berriro auzotik ez irtetea agindu egin zidan. Zertarako, behin eta berriro eta ustekabean udaltzain aluokin topo egiteko, ala?

El Penultimo esaten dioten tabernaren aurrean nago. Nire arrebak dionez gure anaia Yâserren lantokietako bat, gogokoen omen duena, alajaina. Aiko-maiko egon naiz tabernetara inoiz sartzen ez naiz-eta, baina azkenean, eta lñaki irakaslea hor nonbait nire atzetik segika begitantzen zaidala, sartu egin naiz, nire anaia handia topatzeko ustez soil-soilik. Baina, arratsaldeko bostak inguru dira eta, taberna irekita egon arren, ez dago Yâserren arrastorik, egia esan ez dago inor barraz bestaldean. Barra atzean, ordea, zerbitzari argal eta tximaluze bat dago edalontziak buru belarri garbitzen ari dela, eta ni

ikusi orduko sudurra zimurtu egin duena; ez dakit ba nik bere eginbeharra nolabait oztopatzen dudalako edo niri azalaren kolore susmagarriagatik. Azken hau ez da oso kontuan hartzekoa, ondotxo baitakit taberna honetan nire irakaslea bezain jatorrak eta kontzenziatuak direla. Jakina, bestela nola izango du bertan nire anaiak bere salgune nagusia? Onartu ezezik seguru asko bertakoak bezero onak eta guzti dituelako, gogoratu besterik ez dut egin behar nire arrebak hain usu esaten duena: “zoaz *Penultima* zure anaiaren bila, eta esaiozu gure ama berataz galdezka ari dela, badirela makina bat astebete etxetik azaltzeke”. Hain hutsik dago taberna ezen barraraino joan beharrean ozta-ozta muturrean dagoen mahairantz abiatzen naizen. Tamalez, eta espero bezala ere bai, behin eserita zerbitzari argal eta tximaluzea edalontziak bertan behera utzi, eskuak sikatu eta niganatzen dakusat. Ez dakit zer dela eta baina bat-batean nortasun agiria patrikatik ateratzeko premia sentitu izan dut, ezin ageriagoa baita hamazortzi urte baino gutxiago ditudala.

–Zer hartuko duzu?

–Ehh....?

Bururatu zaidan aurrenekoa eskatu egin diot, hots, paretean ikusi berri dudan iragarkiarena: katxi bat garagardo, lau euro. Zerbitzariak sudurra are zimurtuago egin du, baina ez dit tutik ere esan, eta barra aldera bueltatu egin da ustez nire agindua betetzearren.

–Hor duzu, katxi bat garagardo.

Eta berriro ere ez dakit zer dela eta azaldu behar egin nion lagun batzuen zain nengoela. Beharbada katxia mahai gainean utzi eta gero nire begira geratu egin delako ordainaren zain eta nik, noski, nola ordainduko ez dakidala ezinbestez uxatu behar.

–Geratu gara bostetan eta oraindik ni neu bakarrik azaldu naiz, ez dute formalitaterik!

Nik uste irri egin duela, baina ezta oso irri atsegina, mazala, xume edo goxoa, guztiz erdeinuzkoa baino, bertokoek hain gogoko dutena batere ezagun edo ardura ez zaien oro etengabe gutxiestearren. Dirua poltsikotik ateratzekoa egin dut baina tipoak ez dit aukerarik eman, katxia utzi, ni goitik behera ikuskatu eta, haren irritxo oker hori eskeini eta gero, barra alderantz bueltatu egin da supituan. Primeran, banuen gogoia lasai moduan gogoeta egiteko, inola ez nire burua behin eta berriro zuritzeko ez dakit zeren ustezko errudun banengo bezala. Dena dela, eta nahiz eta zerbitzari tximaluzeak nigandik alde

egin, ezin ditut bere begi zorrotzak eta betarte gero eta zimurtuagoa nire gaineratik baztertu. Bistan dago begitan hartu nauela, ez dela nitaz fidatzen badaezpada, ezin esan badaezpada zer edo zer dela eta, ez didala lehen larderiazkoa eta gero destainazkoa bakarrik izan nahi duen bere begiratu bizia gaineratik kenduko bere tabernatik ospa egin arte. Orain bai, zer arraio egingo dut ia deskuiduan eskatutako katxi honekin? Badakit ezingo dudala garagardo guzti hau edan.

Nik ez dut edaten, bederatzi urte bakarrik ditut, bi hilabete barru hamar izango baina ez da nahikoa, eman badakit gehiago ematen dudala, baina inola ere taberna hau isunpean zerratzeko modukoa udaltzainen bat ustekabeaz azaldu ezker. Tira ba, nahitaez ordaindu beharko dut, beraz, nire lehenengo egiazko zurruta emango diot. Mingotsa ikaragarri gustatzen zaidala asmatu berri dut. Ondoren bigarren zurruta. Baietz ba, goxo-goxoa eta Hâkimen ebatzia gargardoari buruzkoak gero eta arrotzagoak: *haram*. Debekatua, kopetaraino nago Hâkimen debeku eta bekatuez. Berak dio gure nortasunari atzerrian eusteko ezinbestekoak direla, zuzen dagoela inguratzen gaituzten gauza onak hautatzea, gureganatzea, baina beti gure erlijio edota ohiturekin bat datozeela, bestela alde batera utzi beharrean gaude. Gauza jakina da, eta arrunt ohikoa, gurea baino aurreratuagoa –edo hau da behintzat sinestarazi digutena gure auzokoek– edota aberatsagoa den gizarte batek liluratuta suertatzea, baina guk ere jakin behar dugu gure fedearen indarra norainokoa den kalte egiten digunari uko egiteko, eta Hâkimen ustez indar hori *sharian* dago, hots, bizitzaren arlo guztiak arautzen dituen kode sakratuan. Nik ez dut sharia delakoa Hâkim fededun ikaragarri zintzoak bezain ondo edo zehatz-mehatz ezagutzen, egia esan badakit entzunez bakarrik –eta gehienbat Hâkim sasi-*mufti*aren ahotik, gure etxean halako gauzak inoiz oso aintzakotzat hartu ez ditugulako, batez ere amak edo amandreak erlijioaren kontura zer edo zer esatekotan nire arrebak beherala aurre egiten dien aldetik Europan gaudela aurpegira botaz– alkohola, txerrikiak edota okela ez odolgabetua *haram* direla, gehiena jota. Nik uste gure etxean erlijioari buruz argi eta garbi duten bakarra nire anaia Yâsserren bizimodua bekatu ezin larriagoa dela, edo gure amak maiz esan bezala: *zure anaia malapartatu hori aspaldi infernura bidean ari da*.

–Barkatu, baina badakizu Yâsser izeneko gazte bat etorriko den geroago?

Badirudi zerbitzari tximaluzea txunditurik utzi dudala nire galderaz, ez zuela inondik ere espero eta are gutxiago bere tabernako izkina batean kokildurik zegoen ni bezalako umemoko batengandik. Niri begira dut, erne-erne eta barreari ezin eutsiz, eskuartean dituen edalontziak eta trapua bertan behera utzi gabe. Oraingoan bai, beherala konturatu naiz norainoko zentzugabekoa, zernolako kirtenkeria galanta den beragana joan izana nire aniaz galdezka, zerbitzari jaunak bere tabernatik pasa egiten diren bezero guzti-guztiak ezagun izan behar balitu bezala.

–Zure herriko jende pila etorri ohi da baina ez ditut guzti-guztiak ezagutzen, hobeto azaldu behar didazu nolakoa den tipo hori ea asmatzen dudan.

Nire anaia handia dela esan diezaioket soil-soilik, eta badakit ez dela nahikoa, hutsaren hurrengo baizik, baina egia esan, ez dakit Yâsser nola irudikatu, are gutxiago zertarako ezin nabarmenago baita astapotro sapazto horren bat-bateko arretak helburu bakarra duela, nitaz trufa egitea.

–Eskerrik asko baina ez du inporta, nire txokoan itxarongo diot.

Eta nire txokora bueltatu orduko katxiari ematen diodan zurrutada luzea nire bizkar atzean somatzen dudan mesprezuzko irribarre ezin gaiztoagoaren kontrako parapeto bihurtzen saiatzen naiz. Aitortu behar dut kokoteraino nagoela, ez dudala inoiz hau bezalako sasikume harropuz zorritzotz hau topatu, hau bezalako kobazuloetara behin berriro inoiz ez sartzeko motibo franko ematen didala, hemendik ospa egiteko beste.

–Katxia ordaindu behar didazu, sei euro dira–

Sasiko halakoa! Iragakak lau euro direla argi eta garbi dio. Baina ez dut inolako gogorik berarekin eztabaidaka hasteko barruan murgilduta ere plisti-plasta ere ezin hustu izango dudan katxi baten kontura. Guztiz kontrakoa, berarekin inolako sesiorik izan beharrean ia tupustean sartu berri den bezero koadrilak eskeintzen didan egiazko parapetoaz baliatzen naiz halako kinka batetik ihes egiteko ezin aproposagoa den Ahmed kankailuaren metodo bikain zoragarria bigarren aldiz egun berean erabiliz.

Petrineria kalean gorantz takarradan ihes eginez aspaldi honetan zeharo gogaikarria suertatzen ari zaidan zorioneko tabenera iritsi berri naiz. Oraingoan ez naiz sartuko badaezpada, kopetaraino nago *nasrien* begirada zorrotz zein trufariez, baina, hala eta guztiz ere, ez naiz ate aurretik mugituko agure izorrante hori behin berriro azaltzen ikusi arte, noiz edo noiz azalduko delakoan, bere moduko zurrutero adintsuek ez baitute beste nora jotzekorik, nik uste, bai uste ustela. Nazka- nazka eginda nago bizikletaren asunto honekin, egia esan egunero inguratzen nauen guzti-guztiz ere nazkatuta nago, esan nahi dut, batik-bat nirea, gurea, sekula izango ez den hiri alu madarikatu honekin. Benetan harrigarria eta zentzugabekoa baldin bada ere gaur bezalako egunotan inoiz baino faltagoan somatzen dut apenas ezagun eta bai ordea nahiko arrotza zaidan nire sorterri urrun eta eskertzarreko hura. Baina, edonola ere ez naiz mugituko oraintxe bertan nagoen izkina honetatik harik eta delako Gabriel Ruiz

Payueta jaunak nire anaiak oparitutako bizikleta behingoz itzuli arte. Bestela, nik sentitzen dut, baina nire anaiari berari berreskuratzen lagun diezadan eskatu beharrean egongo naiz, eta orduan bai, akabo komeriak!

VII

Orduaz ere ez nintzen ohartu, baina bai apur-apurka inguratu ninduen ilunkararen nonahikotasunaz. Agurea ez zen agertu, ez zuen ematen agertzeko asmorik zuenik. Etxerantz joan nintzen biraoka, nahiz eta bera agertu arte niri buruari handik ez mugitzeko agindua emana nion, ezin nuen Flor de Lis tabernaren aurrean egusentira arte zain egon. Egia esan ezin nintzen oso berandu arte bertan zain egon gure etxean kezkatzen has ez zitezen. Alabaina, etxeko atetik azaldu orduko gure ama nigana zoro moduan eta deardaka zetorrela topatu nuen. Gure ama “non zeunden, alproja hori!” eta nire kizkurtxoetatik tiraka ari zela arrapostu gisa otu zitzaidan bakarrak iadanik bere onetik erabat irtenda zegoen atso horren amorrazioa areagotu baino ez zuen egin.

–Zure anaiaren antzera bukatu aurretik nik neuk akabatuko zaitut –mehatxu egin zidan nire ama maiteak.

Kalean etxeraino lagundu ninduen ilargiari erreparatzekotan oso atzeratua nintzen, aitortu beharrean nengoen, noski. Baina nire amaren bapateko haserrealdi homizida hura gehiegizkoa zen. Ez zuen zentzurik tamainako hirak kalean nire lenhengusuarekin jolasean atzeratzen nintzen lehendabizikoa ez baitzen. Nire ama bultzatu egin nuen bere atzaparretatik askatzearen eta batez ere xehetasun eske.

–Zure arrebak kontatu dit Yâsserren bila ari zinela gaur arratsaldean?

Eta hain arraroa, eskandalagarria, bekatu larria al da anaiarekin elkartu gura izatea? Badirudi baietz, gurea bezalako anaia batekin bederen, bere amak berak gaitzesten duen seme etxekaltearekin.

–Zertan ari zara zure anaia malapartatu horrekin hain berandu etxeratzeko?

Ez nion bizikletarena kontatu nahi, oraindik ez behintzat, nik neuk deslotu behar nuen nire lerdakariaren erruz egindako korapiloa.

–Dirua bakarrik eskatu nahi nion zuk lagatzen ez dizkidazun komikiak erosteko.

–*Metyeqen!?*, bai zera!, eta horregatik ospa egin zenuen ikastolatik zure maisuari bizkarra emanez?

Ezin sinesturik nengoen, entzun beharrekoa, batez ere norainoko endredamakila ote zen, Iñaki Zubibarrieta jauna nire etxera nitaz galdezka hots eginez eta guzti.

–Esan digu zure gaurko jokabideak izugarri harritu egin duela, batez ere zu bezalako ikasle saiatu batengandik.

Ni bai nengoela kopetaraino donemairuen zaindariaren jokabide paternalista okagarriaz.

–Itaundu eta guzti egin digu ea etxean arazorik zenuen. *Hsoma!*, bai lotsa handia!

Nire arazo bakarra bera eta agure madarikatu hura bezalako *nasri* nazkagarriak omen ziren, beti gure atzetik izorratzeko edo laguntzeko asmoz, nire ustetan txanpon bereko bi aldeak. Ezin nuen bestetik, berandu zen eta neka-neka egina nengoen nire burua edozein lelokeriaz zuritzen saiatzearren.

–Nire bizikleta berreskuratzeko laguntza eskatu nahi nion.

Lehenik aho zabalik edo paratu zitzaizkidan emakume biak, gero, ordea, aiko-maiko hasi ziren, nire aitorenaren zein alde, bizikleta galdu izanak edo nire anaia tartean egoteak, gehien kezkatzen zituen ez zekitela.

–Eta zergatik ez diguzu guri laguntzeko eskatu? –azkenik, eta nire ustez agurearekin talka egin eta gero honek bizikleta bahitu zidala gezurra botatzeari esker, nire amak erabaki zuen.

–Lehenik eta behin Hâkimi eskatu egin nion, baina tipoarenganaino jo eta gero kikildu egin zen –eta bidenabar gure amak hain aintzakotzat duen Hâkim sasi-jakintsu handiustekoaren kontrako ziri bat botatzeko aukera paregabekoa suertatzen zait.

–Bihartxe bertan taberna horretara joango gara zure arreba eta biok *nasri* nazkante horri gainegurra ematera eta, ez baldin badigu kasurik egin nahi, udaltzainei hots egingo diegu bere lekuan jar zezaten.

Bai nahaste-borrastea, nahiz eta gure amaren nireganako hira baretzen lortu nuen, nik emandako datu bakan eta okerren erruz derrigorrean lapur zikin bat begitantzen zitzaion agurearenganako mendeku nahia-edo piztea baino ez nuen lortu; *larrutik ordainduko dizu zure*

bizikleta hori! Eta zer esanik ez, bart ez nuen lorik egin, gure amak, bai lotsagabeki botatako gezurraz kontura ez dadin, bai agure horrekin inolako iskanbilarik sor ez dezan, nola edo hala ebitatu behar nuen. Baina nola, hori ezin asmatu.

VIII

–Aizu, Alim, klasea bukatutakoan zurekin berba egin gura dut.

Falta nuena!, Iñaki sasi-jakintsu onbera aspergarriaren txanda. Ikastordua.

–Badakizu zure etxera hots egin nuela zure atzoko jokaeraz kezkatuta.

Nire buruari galdetu diot ea ni bezalako *morito* bat izan ez balitz berdin jokatu zukeen nire maisu hiperkontzentziatu eta superjator honek. Baina, eta betiko legez, ez ulertuarena egin dut, hots, euskara ulertzeko ume etorkin burugogor bat banintz bezala. Nerau bai, klaseko notarik onenak ateratzen dituen mairutxo azkarra.

–Nik badakit ondo baino hobeto zernolako gogorra den zuetako batentzat arrotz duzuen ingurugiro batean bizitzea, ez duzue hizkuntza behar bezala ulertzen, sarritan bertakoek begi txarrez ikusten zaituztete, eta batzuetan ere egin ez duzuen zenbait bidegabekiaren errua leporatzen dizuete lotsagabeki, ohitura zein aurreritziaren indarrez. Ez da harrizkoa, beraz, kopetaraino izanda, noiz edo noiz leher izatea, tupustean dena popatik hartzera bidali nahia. Hori egunero ikusten dut zu bezalako haur etorkinetan. Baina, zure kasua berezi samarra da, Ali, zu oso mutiko azkarra zara, eredugarria esango nuke nik, gaur egun arte ikaragarri ondo moldatu dena, bai hizkuntzara, bai eskolara, eta baita auzoko bizimodura ere. Egia esan, nire ikasle onenatariko bat zaitut, onena ez baldin zara. Hori dela eta, kezkatu besterik ez dut egin guztiz bidezko ez den jokabide bati eutsi diozunean, ulertzen?

Noski baietz, ederto ulertzen dut. Horregatik, eta agian ere nire ama Flor de Lis tabernan sar ez dadin, hau da, zor didan duintasuna kolokan jar ez dezan, nire irakasle superjator eta hiperkontzentziatu honi aspaldi auzoko izan zuen Ruiz Payueta jaunak osturiko bizikletarena gogora ekartzen diot.

–Hori al da guztia? Ene bada, banekien nik ezin zela zure errua izan, zerbait edo norbait tartean egon behar zela, besteak beste gure auzo elkartearen etsairik handiena, xelebreena, auzoaren berriztapen planari uko eta traba egiten zizkion agure nazkantea. Ez nau harritzen, ez, oraingoan arrazista zikin baten modura jokatu izanak, hori eta antzeko mila gauza ere espero litezke bere moduko astapotro batengandik.

–Egia esan, bizikleta hartu aurretik ni neu bere gainera oldartu nintzen –bat-batean zer edo zer zehazteko gogo itogarria sentitu egin nuen.

–Hala eta guztiz ere ez zuen inolako eskubiderik zure bizikleta bahitzeko. Baina, ez kezkatu, oraintxe bertan elkarteko lagun bati hots egingo diot sasikume horren helbide berria eman diezadan, geroago bere bila joango gara biok; espero dut behin berriro ihes ez egitea klaseak bukatutakoan.

Ez dut inora ihes egiteko gogorik. Ez behintzat nire lehengusu Hâkimen dendaraino bere erretolika hutsala entzuteko, ez eta nire amarenganaino ere azkenik bere mehatxua bete dezan bera bezalako emakumezko batek inola eta inoiz ere sartu behar ez duen taberna batera lagunduz. Eta zer esanik ez nire anaia beti kanpotik dabilenez, ezin igarri nola jokatuko, beraz zenbat eta kanpoagotik gero eta hobeto. Gauzak horrela, eguneko azken ikastordua bukatu orduko ikastolako sarreran nire soroslearen zain egon naiz geldi-geldi.

–Ezin sinesturik nabil, telefonoz hots egin berri diodan lagunak esan dit gure agureak alde zaharrear zuten azkeneko etxea aspaldi saldu ere egin zuela, inork ez dakiela non bizi den gaur egun.

–Hori ez baldin bada Flor de Lis izeneko taberna horretan bizi...

Azaldu behar egin dizkiot nire laguntzaileari azken egunotan gure agure lapurra topatzeko izandako gorabeherak, nahiz eta aipaturiko taberna horretan behin baino gehiagotan azaldu, birritan edo bakarrik harekin topo egin dudana. Iñakik berehala kontuak atera eta bi aldiok arratsaldeko gutxi gora behera zazpiak aldera izen direla konturatu da, hau da, kaleko olgetatik etxera bueltazeko ordua.

–Orduan zazpitan geratuko gara tabernaren aurrean, puntu-puntuan.

Behin berriro nire burua kinka larrian ikusi dut.

–Arazo bat dut, irakasle. Nire amak ere gaur arratsaldean hara joateko agindu egin zidan, eta ez dut inola ere bera joatea nahi agureari errieta hitz egin diezaion, erdara doi-doi ulertzen du-eta.

–Lasai, motel, esaiozu nik lagunduko zaitudala.

–Ez dakit ulertuko didan, oso egoskorra da...

IX

Asma bezala, ikastolatik etxera bueltatukoan nire amak ez zuen ulertu, ala gutxienez gaizki ulertu egin zuen, bere ordeztu lřaki irakaslearekin agureak bizikleta itzul ziezadan tabernaraino joango nintzena.

–Etxeko arazoak etxekoek konpondu behar.

–Eta are gutxiago *nasri* zikin bat tartean sartuz, *fhamtini*?¹ –gaineratu egin zuen nire arreba gure amarekin bat zeharo egiten estreinako aldiz.

–Eta zer egin nahi duzue nik egitea herri alu honetan irakaslea egun osoan gainean baldin badaukat, ezin nintzen klasean kontzentratu eta kezkatua somatu orduko nigana galdezka ea zer nolako arazo nuen etorri zitzaidan, guzti-guztia atera zidan.

–*Nasri* zikin horiek beti gure atzetik arazoan errudun edo biktima garelakoan –nire arreba benetan ernegaturik hauteman nuen –edonola ere kopetaraino naukate hainbeste badaezpadako arduraz, ziur nago zure maisu jator eta arduratsu horrek mairu izan ez bazina bestela jokatuko zukeela.

–Baliteke, baina mairu naiz eta nire irakaslea beldurrak dago maltzakeriaren bat egingo diogun agure koitadu horri. Horregatik agindu egin dit udaltzainengana jo egingo duela laguntzen uzten ez baldin badut.

Gezur borobila bota eta segituan gogoratu nintzen behin batean ikastolako jolastokian mutiko astapotro batek bota egin zidana: “mairu guztiak berezko traidoreak eta gezurtiak zarete, nire aitona ondo baino hobeto ikasi egin zuen *Alayumen* soldadu egon zenean”. Orduan egur ederra eman nion tontolapiko alu horri. Ezin nuen burutik kendu nire lehengusu Hâkimek behin eta berriro gogoratu ohi zizkidan Profetaren hitzok: “Zintzotasunak bide zuzenera darama eta bide zuzenak *Yennara*, faltsukeriak, aldiz, gaiztotasunera, eta gaiztotasunak *Gehennako* sutara.” Gaur egun, ordea, orain dela pare bat ordu hobeto esanda, gezurrak nire etxea supituki bilakatutako *Gehenna* partikularretik, hots, nire ama eta arreba atzaparretatik, salbu ihes egiteko ikaragarri balio izan dit: ez dakit ba nik nire fedearen oinarriak kolokan jartzen hasia naizen, *ALLah yehfed!*

–Hala eta guztiz ere, hobe genuen Yâssarren laguntza bizikletarena gure artean bakar-bakarrik konpontzearen.

X

Arratsaldeko zazpiak izan aurretik banago ni zorioneko taberna honen aurrean nire irakasle txit jator eta arduratsuaren zain. Banago berak esan baino lehenagoxe nire etxetik ihesi egin eta gero, hau da nire amaren biraoei eta nire arrebak Yásserri laguntza eskatzeko mehatxuari entzungor. Baina banago, batez ere, nazka-nazka eginda asunto hau guzti honetaz. Badut izugarrizko gogo bizikletarena behingoz konpontzeko, nire aurreko egunerokotasunera lehenbailehen itzultzeko, hots, arratsaldetan nire lagun Mâred kirtenarekin gure bizikletez maldan gora eta behera zoro moduan ibiltzeko, etxera bueltatzeko orduaren kezka bakarrarekin. Baina badut, sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik, behin berriro lñakiren ikasgelan ia ikustezina bilakatzeko irrika. Banago ere kopetaraino berak emandako betebeharrak, hau da, atzerritik etorri eta ekinaren ekinez gainontzeko ikasle guztientzat eredu jardun beharraz. Egia esan, ez dakit bizikleta eskuratu orduko lehen bezain gogor eta kementsu eutsiko diedan liburuei, gero eta ziurrago nago ez dudala inolako beharrik klaseko pitagorina izateko, ikasturtea nola edo hala aurrera ateratzearekin nahikoa, horrela, gainera, Mâredekin olgetan egiteko ordu gehiago izango dut.

–Hara, nire mairutxo maitea! Non sartu zara aspaldi honetan? Bazen garaia zu berriro ikusteko! Esaidazu, motel, zertarako gura dudan nik zurea bezalako bizikleta kaskar bat.

Harekin tabernazulora sartzeko keinu bat egin dit. Aiko- maiko egon naiz luzaz. Baina, nire irakasle superjator eta hiperkontzenziatua berandu zetorrenez gero, men egin diot ordura arte Lur planetako gizakirik arbuigarriena nuen agure horri.

–Gaurtxe arte zure bizikleta egunero ekarri egin dut. Baina azken egunotan zu ez zara tabernan azaldu, eta ni banengoen nahiko asperturta bizikleta hiriko mutur batetik bestera eraman beharraz.

Ni ere azken egunotan honaino etorri baina barrura sartzen ausartu ez nintzela aitortzekotan egon naiz. Ez dut egin, zertarako gainera, ez zuen zentzu handirik aurreneko egunetan gertatutakoa gertatu eta gero, gainera beldurrak nengoen behin berriro dena eta batez ere huskeria bategatik zapuzteko. Orduantxe, ez dakit nola, baina bat-batean agureak sorbaldatik oratu eta barruraino eraman nau ia herrestaka. Agureak berriketan jardun du etengabe, bere lagun tabernariari agur egin, taberna barreneko mahai baten inguruan bere tripa itzela egokitu, eta ni bere aurrean esertzeko keinua ere egin bitartean. Beharbada maltzurregia omen naiz, baina ezusteko aitajaun xarmant horrek aspalditik norbaitekin hitz eta pitz lasai moduan egiteko gogo bizia zuela dirudi. Agurearen ahotik hitzak

parrastaka jalgi ahala horren tipo gaiztoa ez dela oldozten hasi naiz. Aitzitik, agurearen berbakizunak behin baino gehiagotan barrea eragin dit ia ustekabeen, kontatzen ari dena gogoko ezezik, nolabait ere gizakume bakarti baten alde ezkutu eta samurraren seinale nuen. Halako batean, ordea, nire irakaske superjator eta hiperkontzenziatua agertu da tabernako atetik ia arnasestuka. Han hemenka begiratu eta gu ikusi orduko gureganatu egin zaigu ziztuan, eta ustezko txinpartak zeriola; egia esan, aurpegian aspalditik ehizan ari denaren irribarretxo okerra zekarrela begitandu zait.

–Ekarri al diozu bizikleta mutikoari? –Iñakik bota egin dio agureari supituki nire ondora esertzerakoan, aspalditik teink eginda zuen arkuaren geziaren modura.

–Agindu badiot bihartxe bertan ekarriko dudala, *sin falta*.

Gabi –hala deitzeko erregutu egin dit– nire irakasleraren tonu zakarraren aurrean zer egin ezean somatu dut erantzun baino lehenago. Egia esan, popatik hartzeko bidaltzekotan zegoela begitandu zait.

–Eta zer dela eta bihar eta ez gaur, zergatik ostu behar zenion? –Ezin ageriago da nire irakaslea bere neurriko harrapakin bat topatu duelakoan dagoela.

–Ez duzu ezer hartuko? Taberna batean gaude-eta.

Zeharo kokildurik nuen bihotzetik hasperentxo bat darit. Ezta gutxiagorako, bat-bateko erantzun gogor bat espero nuen agurearen aldetik; ez dakit ba, ahobeteko berbak gutxienez. Baina, biraoka edota mehatxuka hasi beharrea nire irakaslea nolabait aztoratu egin duen ateraldi guztiz nahasi bat bota egin dio erantzun gisara. Aitortu beharrea nago, agure sumin eta karkail bat gogoan nuen. Baina, antza denez guztiz oker nengoen, gogoratu besterik ez nuen egin behar berarekin topo, edo hobeto esanda talka, egin nuen aurreneko momentuaz geroztik adarra etengabe eta errukigabe jo egin didana. Gabiren adarjotze maltzur hau ikaragarri gogoko dut.

Egiazalea izan nahi izan dudanez, Gabiren hurrengo zirtoa Iñakiren dardoa baino zorrotzagoa begitandu zait.

–Ezagutzen al nauzu?

–Noski baietz, behin baino gehiagotan ikusi ohi zintudan Alde Zaharreko elkartearen bilkuretan.

–Nik ere oso ezagun zaitut, auzoaren onerako edo berriztatzeko edozein proposamenen kontra azaldu ohi zinen, batez ere auzora iritsi berri izandako jende gazte edo etorkinen ahotik izanda. Egia esan, ez zenituen auzoko berriak batere gustuko.

–Besteak beste, zu bezalako potrozorri gogaikarriak.

Iñaki gaixoa harri eta zur, ez dakiela nola jokatu, zer erantzun printzipioz eta agian ofizioz ere gaitzesten duen zakarkeriari eutsi barik. Ezta urrik eman ere, hamaika bider lehenago esan bezala nire irakaslea oso tipo jatorra eta arduratsua omen da halako joko arriskutsuan sartzeko, ez da inola ere gure Gabriel bezalako astapotro baten modu zatarretara makurtuko. Hori dela eta, zer edo zer asmatu beharreen dago begien aurrean duen agure kaskarro horri merezi duen lezio gizalegezkoa txukun-txukun irakasteko asmoz.

–Begira, ez daukat inolako gogorik zurekin denbora alperrik galtzeko. Gauza bat bakarrik esateko etorri natzaizu...

Badirudi nire irakasle Iñaki ez dela berak uste bezain fin eta arduratsua.

–Ene Jesus! Harroputz ederra eginda zaude zu, irakasle. Aizu, mutil, kopa bat patxaran eskatuko dizut lasaitzearren.

–Ekarriozu oraintxe bertan bizikleta mutiko honi ala bestela...

–Bestela zer? Zuk zeuk ekartzen behartuko nauzu? Ala, eta hori bai, poliziari dei egitea zu bezalako tipo superjator eta hiperkontzeziatu bati bekatu txit larria omen zaizunez gero, zure ezpaleko auzo elkarteko beste memelo horrei laguntzeko eskatuko diezu nire auzotik behin berriro bota nazazuen?

–Nork bota egin zintuen auzotik? Nik dakidala auzoko gehienok elkartearen proposamen bat onetsi genuen eta zuk ordea epaitegian salatu gintuzun.

–Bai horixe! Diru mordoa atera gura zeniguten auzokoei.

–Behar beste, auzoa txukuntzeko, duintzeko aurrekontu bat egin genuen.

–Baina nik emaztea etxean gaixo nuen minbiziak jota, ezin nuen nire pentsioaren diru murrizta txorakerietan gastatu.

–Nork bere neurriaren arabera ordaindu behar zuen.

–Eta nork erabaki zuen neurri hori? Zu zeuk?

–Hori ez da bidezkoa, gehiengoaren interesak gehiengoak erabaki behar.

–Nik beti erabaki egin ditut dagozkidanak.

–Horregatik auzoak bizkarra eman zizun.

–Horregatik ere nik popatik hartzera bidali zintuztedan.

Nire ustez hirurok gure burua erronkaz erronka harikaltutako eta bukatzerik ez duen soka baten muturrean dakusagu. Jakin besterik ez dugu behar nork moztuko norgehiagoka barre/negargarri hau, gero eta ahoberoago ari den agure egoskorrak ala honek bezainbeste ari den irakasle superjator eta hiperkontzientziatuak.

–Ederto, gu gara munduko auzokorik maltzurrenak eta zu biktima bakarra. Hori baldin bada zure ustea niri bost. Baina aizu, mutiko honek ez dut ezeren errurik. Ala bai?

–Zer adierazi nahi didazu?

–Baliteke mairuak ere gorroto izatea...

–Zer??

–Gogoratzen dut ondo baino hobeto auzoko ijitoentzako diru laguntzen kontra ere egin zenuela.

–Nire poltsikoa husteko edozein laguntzaren kontra egiten nuen, halabeharrez.

–Ez nago ni hain seguru, zu bezalako astakirtenak beti ari dira...

–Ni bezalako zer? Ni bezalako pentsionistak, hogeita hamar urtez egunero lanean jo eta ke jardun eta gero hilero miseria hutsa jasotzen duen agure bat? Niri ez dit ardura kendu nahi didaten dirua ijito ala mairu bati emateko den ala ez, niri ardura zaidan bakarra nire emaztearen kargu utzi behar nuen erizaina ordaintzeko behar beste diru eskuratzea da.

–Horretarako zeuden zerbitzu sozialak.

–Eta baldin bazeuden, zer dela eta egunero etxetik irten behar nuen nonbait mota guztietako txapuzak egitera?

–Zuk jakingo, baina zure emaztea zaintzeko erizain baten beharrean baldin bazeuden Osakidetzaren ardura omen zen, ez auzoarena.

–Zoaz txakarraren ipurdira, sasijakinsu alu hori!

–Zoaz zu mutiko honen bizikleta bilatzera!

–Goazen denok etxera, berandu da-eta –nire irakaslea bere onera ez datorrenez, hau da, beragandik espero nezakeen zuhurtziaren zantzurik ez dagoenez gero, bi segapoto haien lehia bertan behera utz dezaten hitzegin dut estreinekoz.

–Mutikoa zuzen dago, ez du zentzurik denbora ezбайдaka alperrik galtzea. Gu bagoaz eta zuk ekar ezazu bizikleta bihurtze bertan ala bestela...

–Bestela Ertzaintzari hots egingo diozu, ezta?

–Baliteke, beharrezkoa baldin bada bai, horretarako omen daude, jende xehea zu bezalako basapiztiek babesteko.

–Ni hementxe bertan izango nauzu, zuk nahi baldin baduzu ekar itzazu beltzak-eta.

Eta azken hau esanda Iñaki mahaitik jaiki eta lepotik oratuz ateraino eraman narama. Ez dakit nire irakasle superjator eta hirpekontzetziatua kalean beherantz goazela, eta nire ustez lehenengo aldiz

suminduta, ahapeka biraoka eta ukabilei gogor eutsiz, ikustean beldurrak nagoelako edo benetan nazkatuta mundu guztiak ia arrastaka naramalako edo, baina orduan otutzen zaidan aurrenekoa botatzen dut ia ezustean.

–Ez kezkatu, irakasle, zu iritsi aurretik bizikleta bihurtze bertan itzuliko zidala zin egin dit.

XI

Iñakik etxeraino lagundu zidan bekozkoari eutsita. Nabarmen zitzaion oso, atzo arratsean nire alde egin nahi izan zuen ekintza ona, hau da, oso jatorra eta guttiz arduratsua, agure alu hark zapuztutakoan, eta beharbada ere bere etxera esku hutsik ez bueltatzearren, nire amari zer edo zer esateko gogo bizia zuena.

–Saiatu naiz gizon horrekin gizalegez hitz egiten, baina alper-alperrik, ez dio inori kasurik egiten, badirudi Alimi bizikleta itzuli nahi ez diola, kalte-ordain modura edo bahitu duela. Nik uste hobe izango dugula Ertzaintzara jotzea.

Noski, Iñakik ez zuen inolako eskubiderik halako gezur borobila botatzeko, are gutxiago bere porrota nolabait zurrizteko asmoz. Hori dela eta, nire irakaslearen maltzurkeriari aurre egitearren, agureak emandako agindua azaldu nahi nien nire amari eta arrebari. Ez nuen aukerarik ezer gaineratzeko, nire ama eta arrebaren erantzuna ezin izan zen ozen eta neurrigabekoagorik.

–Ertzaintza? Ezta pentsatu ere! Guk ez dugu ezer jakin nahi poliziarekin, guk poliziarekin tirabirak besterik ez dugu-eta! –erantzun egin zion nire arrebak ia garrasika Iñaki gaixo txundituari.

–Milesker irakasle jauna egindako guztiagatik, baina gure auziak etxekeekin konpondu nahiago ditugu –saiatu zen nire ama azaltzen nire arrebaren ateraldi bortitza nolabait biguntzearren.

–Uztazu bizikletarena gure kontu, kristauok arazoak besterik ez diguzue ekartzen.

Nire arrebaren azken hitzak ia ezustean haserretik harridurara iragandako Iñaki gogaitu bati ateraino lagundu egin zion. Nire irakasleak ez zuen, ez, samaritanoarena egiteko egun onik, eta are gutxiago lehengai onik, antza. Eskaileretan behera zihoala koitaduak zertan eta nola hanka sartu egin zuen asmatzen bide zen. Zer esanik ez, Iñakik jasotako hutsapilean justizia dibinoaren nolabaiteko aztarnarik zegoela begitandu egin zitzaidan.

Horregatik auzoak bizkarra eman zizun. Horrexegatik nik ere popatik hartzera bidali zintudan. Ezin nazkatuagoa nengoen bizikletaren asuntoaz. Nazkatuta nire familiaren jokaera ulerkaitza eta zeharo arbitrarioaz, nire anaia Yâsser badaezpadako mehatxuaz, nire lehengusu Hâkimen ezereztasun

fededunaz, nire irakaslearen laguntza superjator eta hiperkontzenziatuaz, eta egon banengoen gainontzeko guztiokin baino nazkatuagoa lapurrarekin berarekin. Dena dela, atzodanik nire agurearenganako herra dezente baretu egin da. Ez da harritzekoa halako ia ustekabeko pentsakera aldaketa, Iñaki tabernatik hain harro eta bortiz azaldu aurretik berarekin luzaz mintzatzeko parada izan nuen-eta.

–Barkatu behar didazu zurekin hain gaizki portatu izana, baina bizikletaz jo ninduzunean ezin nuen sinetsi, behin berriro nire gainera oldartzen zen beste mairu bat...

Ni bai egon nintzela ezin sinesturik Ruiz Payueta jauna entzun eta gero. Beste mairu bat? Nire iraskaleak eta etxezoek adierazi bezala arrazista peto-peto baten aurrean nengoelakoan txunditu eta ikaratu ere egin nintzen. Zorionez, Gabik –hala deitzeko erregutu zidan-eta- nire aurpegi ezin harrituagoan erreparatu eta atoan lasaitzeko nire askaziekiko gorabeheren berri eman zidan.

–Familia galtzeko zorian egon nintzen zuetako baten erruz.

Nabarmen zen, oso, nire aurrean eserita nuen agureak berriketan egin nahi zuela, beharbada oso aspaldi-aspaditik.

–Mariasunek behin baino gehiagotan egotzi zidanez dena nire errua izan zen. Oso tipo egoskorra eta odolberoa naiz, aitortzen dut, ezin dut besterik egin, hala sortu ninduten eta hala hilko naiz. Alabaina, sarritan ere hanka sartze handi- handiak egiten ditut nire burua behar bezala kontrolatzen ez baitakit, gauza bat gogoz eta bihotzez errotik sinesten dudalarik. Geroago, gauza bera okerra dela antzeman orduko, damu egiten naiz. Baina, alperrik, nire erruaz konturatu baino lehenago hamaika huts egin baiditut dagoeneko. Antzeko zerbait suertatu egin zitzaidan zure herriko auzoko batzuekin. Hemendik gertu, Petrineria kaleko bosgarren atarian eta ia hirira iritsi nintzenez geroztik izan dudana etxebizitzaren gainera bizitzera etorri ziren. Printzipioz nik ez nuen ezer atzerritik etorritako jendearen kontra. Alderantziz, nik soldaduzka Afrikan egin nuen, Sidi Ifnin bertan, beraz mairuak oso ezagun nituen, eta haietariko baten bat lagun ere bai. Baina, arazoa ez zen hori, arazoa zen ordura arte izandako gorabeherak goiko pisuan debalde bizi ziren auzoko ohiekin, hau da, ijito familia bat, Manolotarrak, mota guztietako iskanbilak izan genituenekin. Esan nahi dut, niri ez dit ardura goikoa ijitoa, mairua edo estralurtarra den, nik edozein auzokoarengandik espero dudana bakarra zintzo eta zuzen jokatzea da, gainontzekoek nigandik espero bezala hain zuzen ere. Ijito alu horiek ez zuten, ordea, halakorik egiten, guztiz kontrakoa baino. Ez zituzten inor eta ezer errespetatzen, ez zuten inolako zerga edo saririk

ordaindu gura. Gainera etxeko argiak, hodiak zein edozein apaingarri etengabe ostu eta hau guztia gutxi bailitzan ataria droga salgune bilakatu zuten gainontzeko auzokoen begien aurrean. Kopetaraino geunden eta auzo biltzaile batean Manolotarren afera mahai gainean ipintzeko erabaki genuen. Inork ez zuen ezer esan nahi, den-denak kolkilduta zeuden badaezpada Manolotarrek euren kontra jotzen zuten. Nik ezin nuen sinestu nire auzokideen koldarkeria, kalean zein eskaileretan elkar topo egiten genuela denetarik esan ohi zuten Manolotarren kontra, ez zegoela eskubiderik, zer edo zer egin behar zela euren bidegabekeriekin behingoz bukatzeko, hurrengo auzo biltzarra ezinbestekoa izango zela konponbidea bilatzeko. Eta bat-batean denok isil-isilik zerura begira. Noski, baldin badago benetaz asaldatzen ninduen zerbaite hori koldarkeria da. Eta gogoz asaldatu nintzen koldarroi Fernandoren egiak eta hainbat birao ere esatearren. Ijito madarikatuoi ultimatum bat emateko edo bestela epaitegira eramateko proposatu eta bat-batean den-denok bat etorri ziren nirekin. Hori ba, erabakiaren berri ematea niri kargu. Ez zidan axola, ez nuen besterik egin. Bilkuran erabaki bezala Manolotarrengana joan eta etxetik ospa egiteko agindua eman nien edo bestela epaitegian aurrez aurre ikusteko mehatxua. Inork ez zuen espero baina biharamunean etxetik behin betiko joan egin ziren, epaileekin zenbait tirabira bazutela medio. Zer esanik ez, egunetik egunera etxeko txapeldun bihurtu nintzen. Hurrengo astean udalekoek mairu familia bat kokatu zuten Manolotarrek utzitako pisuan. Sumindu egin nintzen, udaleko morroi sasijakintzu izorrante hark nire kontrako mendeku moduko erabaki bat hartu zuelakoan nengoen. Ezin argiago nuen ijitoen ordeztu mairu haiek kokatu izanaz gure auzo elkarteari mezu bat bidali nahi zigutela, udalaren interes politekero-propagandistikoak auzokoen eguneroko gorabeheren gainetik zeudela, bost axola zirela gure agintari prestuei gu bezalako auzo apal batzuen arranguren euren itxurakeria elektoralaren aurrean. Hala adierazi nahi izan nien elkartekoei. Denetarik esan zidaten, baina batik bat arrazista bat nintzela. Ni arrazista? Entzuidazu, Alim, hori al da zure izena, ezta?, Afrikan egin nuen lagun ia bakarra zu bezalako mairutxo bat zen. Bueno, agian puska bat kozkorragoa, baina mairutxo bat. Brahim ala Ibrahim zuen izena, nirekin intendentzian lan egiten zuen mutiko bat, mandatuekin zein herriko zokotik zenbait horni ekartzen laguntzen zidana, batez ere arkume bila joaten ginela kuarteleko ospakizun handietarako. Oso gazte azkarra eta jatorra. Nik behintzat izugarri estimatu egin nuen traizionatu egin ninduen arte. Baina, hori orain ardura ez digun beste historia bat da. Azaldu nahi dizut ni ezin naizela inondik ere arrazista izan, nire ustez denok leku beretik sortuak gara, gero bereitzen gaituena gizarte honen antolamendu petrala omen da. Gizartekoei zein nire auzoko eta gertuko gehienek, ordea, oso bestela ikusi zuten. Goiko pisuko mairuak hasiera hasieratik eta inolako oinarritzko motibo barik nire etsai berriak egin nituela leporatu egin zidaten, banuela Afrikatik ekarrita edo mairuekiko zenbait aurreritzi traumatiko, Bartolotarren aurka lortutako onespenera nola edo hala eutsi nahi niola edota are iraingarri eta zentzugabekoago, nire gainean ez nuela ijitorik, ez mairurik, ez kristaurik bizirik nahi. Egunetik egunera eta auzo batzarrean

lortutako ospe guztia aienatu egin zitzairen, bat-batean auzoko elementurik gaitzesgarriena eta arriskutsuena bilakatu egin nintzen, doi-doi Manolotarren pareko. Jakina, niri bost gainontzekoen ustea, baina benetan kezkatu eta batez ere ikaragarri mindu egin ninduen nire etxekeoa izan zen.

Gero eta odolestuago jartzen hasia nintzen ez eskatutako aitoren sorta haren aurrean. Are okerrago, ez dakit zer dela eta baina laster nirekin nolabaiteko zerikusirik zuen zer edo zer egotziko zidan beldurrak nengoen. Egia esan, hain handia zen nire egonezina, ezen bizikletarena behingoz ahazteko eta tabernazulo hartatik antxintxiketan ospa egiteko gogo ikaragarri bizia nuen.

–Aitortu beharrean nago auzoko berri horiek gure gainera bizitzera etorri eta gero, burua nolabait galtzen hasi nintzela, batez ere eskaileretan goitik behera estalita zihoan emakumeari oldartu nintzaionean. Bai, motel, ez egin barrerik, zure herriko guztion kontra oldarka egiteko joera dudala uste duzu baina. Badirudi andere horrekin topo egindakoa aspaldi-aspaditik erdi ahaztuta edo nuen zenbait pasadizo gogora etorri zitzaidala ezustean. Egia borobila esango dizut, emakume hura nire aurrean eta gainera nire erruz iraulka ikusi nuela zera pentsatu egin nuen: behin berriro jende honekin nahastuta, behin berriro jendilaje hau etsai.

Nik uste orduantxe zeharo harrituta sumatu ninduela, hori dela eta bere hitzak ahalik eta zehatzen egiten saiatu zen.

–Auzoko berriak mairuak zirela asmatu orduko, eta zer esanik ez guztion ama omen zenarekin eskaileretan topo egin eta gero, Brahim gaztea gogora etorri zitzaidan, traizionatu egin ninduen mairu zikin madarikatua, behin batean koartelek amarruez ia herrestan eraman eta bere lagun batzuen laguntzaz bahitu egin ninduen, behar beste informazio erauztearren. Nik ez nekien gauza handirik kuarteleko nondik norakoez eta, hala eta guztiz ere, denetarik egin zidaten koartelera isilgordeka nola sartu asmatzearren. Ez nien tutik ere esan, ezin nien beraiek alde aurretik ez zekiten ezer esan. Larrutik ordainarazi zidaten, azken finean jarein egin ninduten, baina kuartelera nola edo hala armak zein munizioak lapurtzera ezkutuan sartu egin zirenez gero, nire nagusiek nitaz mesfidatu egin zuten. Ez ninduten zigortu, ez, ezta gertatutakoa nolabait argitzeko asmoz auziperatu ere, baina harez geroztik begitan hartu ninduten. Lehenago nazkatuta baldin banengoen, bahiketarenaz suertatu eta gero ezin nazkatuago iragan egin nituen geratzen zitzaizkidan soldaduzka egunak. Horrexegatik, izugarrizko amorrazioa hartu egin nien zure herrikoei, eta udalekoek auzoko berriok inposatu zizkigutenean nire onetik atera nintzen. Behin berriro jendilaje alu honekin harremanetan asmatu nuen. Ikaragarri gogorra egin zitzaidan, ezin nuen sinestu, ez nuen sinestu gura. Esan bezala, zoratu egin nintzen, erabat, zure kastakoak edonon ikusten nituen, bai nire etxe eskaileretan gora eta behera, bai hiriko edozein

kale bazterretan, bai nire betiko tabernara sartuz, edo lan egiten nuen banketxeko leihatilaz bestaldean; gogoeta eta guzti egin nuen ea musulmanek Espainia berriro inbaditu ez ote zuten. Niri kalte egiteko propio etorriak balira bezala, egunetik egunera nire bizian beste behin azalduak. Edo hori izan zen behintzat garai ilun haietan supituan begitandu zitzaidana.

–Gu etorri ginen Espainiara gure anaiak erregutu egin zigulako, hemen Marokon inola ere aurrera ezin atera genuen bizimodua hamaika aldiz errazagoa zelakoan, hala nik niri ikasketak buru nitzan, nola nire arrebak ile-apaintzaile lana topa zezan –eta inork ez eskatutako argibidea eman eta gero ordura arte ezagun ez nuen gizon on eta zintzo baten irribarre gazi-gozaok nire bederatzi urte samur-samurrak gogorarazi egin zizkidan.

–Jakina, nire burua hain setiatuta begitandu zitzaidan, ezen, izan, izan banuela zure herriko bat baino gehiagoarekin zenbait kalapita, batez ere goiko pisuko auzoekin. Hortaz, nire etxekoak beherala konturatu egin ziren nire bat-bateko zoramenduaz, bai euren begi eta belarri txundituen bitartez, bai auzoan eurrez ari diren aho gaiztoetatik. Nire jokabidea ez zela batere bidezkoa leporatu eta goiko pisukoei barkazioa eskatzeko agindu egin zidaten. Baina, nik ez nuen amore eman nahi, ez nuen uste inolako begiramendurik merezi zutenik aspaldian ere bizitza hondatu zidaten kanpotar zikin haiek. Nolabait gu eta, batik bat, gure bizimodua izorratzera etorriak zirelakoan nengoen, eta gutako inor konturatzen ez zen bitartean, euren asmo maltzurak antzeman eta agerian utzi behar nituen nola edo hala. Familia eta guzti galtzeko zorian egon nintzen zoramenak bultzatuta goiko pisuko auzokoei etxetik behingoz ospa egin zezaten aholkatzen saiatutakoan; egun batzuk lehenago eskaileretan topo egin nuen emakume berari bere etxean kosta hala kosta sartzeko oldartu nintzaiola leporatu egin zidaten. Soldaduzka egunetako traumaren batek jota edo nengoela susmoa hartu eta zoroetxe batera eraman nahi izan ninduten nire seme-alabek. Jainkoari esker, nire emazte Mariasunek nirekin serio-serio berba egiteko agindu, eta nire portaera burugabekoak gure etorkizunerako izan zitzakeen ondorio kaltegarriak banan-banan erakutsi egin zizkidan. Nire seme-alabek ez zuten sinestu nahi, baina Mariasunek ni bertan behera uzteko mehatxatu bezain laster nire onera etorri ez ezik, urte guztiotan isilean gordetako korromioaren zentzugabekeria ikusi ere egin nuen argi eta garbi. Bai astapotro galanta!

–Orduan zuk ez diguzu inolako gorrotorik? –bota egin nuen ia oharkabea.

–Nik gorroto dudan bakarria bidegabekeria da. Bueno, baita gaixotasuna ere.

Gabrielen kasuan biak elkarren ondoan omen zeuden, bidegabekeria itzeltzat jotzen baitzuen Mariasunekin gertatutakoa. Baina, agurea ez zen ari bere emaztearen gaixotasunaz. Birikietako minbizia minbizi, ez zen, ez, sendatzeko edo behintzat atzerako biderik, baina bai, ordea, gaixoa bizirik egon bitartean bera pozik eta batez ere bere ondokoek maitekiro zaindurik egon zedin egiteko asko. Gabrielen ustez, berriz, bere auzoko elkartekoez ez zioten bere emaztearen atzeneko egunak ahalik eta zoriontsuenak eta ahal bezainbeste lasaiak izan zitezten samurtu. Ez behintzat berak bere emazteari hainbeste urte pasa eta gero –hainbeste buruhasute eman eta hankasartze egin eta gero ez esateagatik– zor zion amodioa erakusteko gogoan zuena gauza zezan: euren bizi guztiko etxean azken hatsera arte ohe ondoan egotea. Horretarako, noski, bizi osoko aurrezkiak ezinbestekoak zitzaizkion, hau da, eta beti Gabrielen aburuz, auzo elkatekoez auzoa goitik behera eraldatzeko edo ostu nahi zizkietenak. Auzoko txoropito eta memelo gehienek berriztatze egitasmo alu horri baietz esan ziotenez gero, berari ere erabaki bezainbeste diru eskatu eta emaztearena aitzakia jarrita gizarte zerbitzuetara languntza eske joan zedin agindu zioten. Popatik hartzera bidali egin zituen, ezinbestez, halako astapotroa omen baitzen gure agurea. Nik orduan sudurra zimurtu egin nuen. Emaztearena uler nezake, zeharo, baina agurearen elkarrekin jokabide zatar hura ez nekien nik oso zentzuzkoa zen, izugarri berekoa edota agian mendeku modukoa ez ote zen. Baina, bai kasualitatea, nire sudur zimurtu hori eskatzen ari zitzaizkion argibideak emateko imintziora ere betarik izan baino lehenago, bere begi are zorrotzagoek zein bat-bateko irribarre maltzurak nire irakasle superjator eta hiperkontzentziatua nire atzetik guganantz zuzen-zuzen eta harro-harro zetorrela adierazi egin zidaten.

XII

Gaur ez naiz ikastolara joan. Ez nuen inolako gogorik nire irakasle superjator eta hiperkontzenziatuen begiekin topo egiteko, hots, atzo arratsaldean gertatutakoari buruz zer edo zer esateko, edo are okerrago, berak mehatxatu bezala Ertzaintzaren eskutik agurearengana joateko prest egongo zirenak. Arrisku hori nolabait saihestu beharrea nengoen, horregatik etxetik irten orduko nire lagun Marêdengana hurreratu eta goiza berarekin potrojorran pasatzeko proposatu diot. Espero nuen bat-bateko baiezkoa lortu eta gero Alde Zaharretik hainbat urrunen joateko eskatu diot gaurko eguraldi epela eta ikaragarri eguzkitsua zela aitzaikia. Gure hiriaren inguruko parke erraldoi batera abiatu gara, arestian eraman zituzten oreinak ikustearren. Primeran pasatu dugu, bai oreinak gutaz babesten zituen hesiaren ondotik zehar lasterka, bai paseko hegaztientzako babesgune den aintzira bazterretan jopuntu genuen txori orori harrika. Aitortu beharrea nago, nik Marêdekin izugarri gozaten dut. Baditut ere nire gorabeherak sarri askotan astapetro galanta egina den Mâredekkin –zer esanik ez, hegaztei harrika egitearena bere ideia izan da–; baina, ez dut beste lagun jatorrago eta zintzoagorik ezagutzen denbora hain gustura alperrik galtzeko, batez ere kezkatzen nauen ezertaz ez pentsatzeko. Hala eta guztiz ere, Mâred maite dut, oso, baina ez nuke inola ere izan nahi bera bezalakoa, hau da, bera bezain arduragabea. Badirudi Mâred ek ez duela ezer seriotan hartzen, egunero potrojorran jarduteak ezer gutxi axola diola, bere etorkizunari alde aurretik uko egin balio bezala. Niri ordea asko axola dit etorkizunak, eta nik badakit hau eskolari lotuta dagoela nahitaez. Kezkatzen nau, bai, ez baitut inola ere nire anaia Yâsser bezalako gizon eskolagabe bat bilakatu nahi. Nik badaukat argi eta garbi Yâsserren bizimodu okerrak, eta batez ere bere portaera petralak, eskola oso gazte utzi izanarekin zerikusi zuzena dutela. Bestela nola ulertu behin eta berriro, beti ustekabea eta zuribide gisa bota ohi didana, gehienbat gure amak aditu ziezaion:

–Nahiz eta bost urterekin eskolari behin betiko agur esan, gaur egun gure herriko edozein sasi-jakintsunek baino diru gehiago erabiltzen dut.

Jakina, nik ez dut ia inoiz nire anaiari erantzuteko ahaleginik behar ikastearen garrantzia diruaz haratago irakasteko asmoz, halako perla bat bota bezain laster nire amak zein arrebak aurea hartu eta gure Yâsser sasi-aberatsari bere ondasunaren iturria nondik datorren biak batera eta gehienetan oihuka zein mehatxuka ere gogoratzen baitiote:

–Alah ahalguztidun eta jakintsuak agindu bezala: lapurrari eskua ebaki eskuaz lapur egiteagatik.

Goizeko aurreneko orduak parkeko ugaztun eta errulena atzetik eman eta gero, atzenekoak berriz, eta oreinak orroaka zein hegaztiak txilioka hasi orduko, parketzainen aurretik ihesi igaro ditugu ezinbestean; esan bezala Mâred astapotro galanta da, eta badu ere izugarritzko punteria, bai harriez, bai txistuez, bai eskura jausten zaion guztiaz, bere etxekoei arazoak sortzeaz gain, seguruen duen abilezia bakarra. Zorionez, parkean barrena lasterka, ezkutu-gordeka eta beti barrezka aspertutakoan ondoko auzo berriko burger bateraino abiatu gara Mâredesk eskatuta. Nire adiskideak hamaiketakoak eskaini dit eta nik noski baietz esan ondoren, dirua nondik atera duen galdetu egin diot neure buruari.

–Amak ematen dit badaezpada ikastolako jantokian txerrikia dugun –erantzun dio Mâredesk nire betarte erdeinugarria egitera ausartzen ez den galderari.

Gezur borobila, biok ondo baino hobeto badakigu bere etxean dirua ez dela sekula soberan, aitzitik, izugarritzko eginahalak egin beharrean daudela euren aitaren soldata murriz eta oso noizbehinkakoari ahalik eta etekin handiena ateratzearren. Areago, aspaldidanik susmoa hartuta nago nire adiskideak Yâsserrerren esanetara lantxo batzuk egiten dituela; nire anaiak berak aspaldian ere proposatu egin zidan eginkizun berbera, hots: auzoko nontzeberri.

–Zer deritzozu Yâsserri –galdetzen diot ezustean–

Ez dakiela, nire anaia izanda ea zer nahi dudana esatea, majoa, jatorra, sarritan ere apurtxo bat sumina, baina halabeharrez, bere ustez bertokoez ez gaituzte batere maite, denok lapur gaituzte. Noski, eta Mâred gaixoa ustetik izatera alderik ez delakoan nire anaiarentzat mezulari. Baina, Yâsser ez da berak uste bezain majo edo jatorra, sumina bai, itzela eta edozein huskeriagatik, gure aita zena bezainbat, azken finean herri alu honetara etorri ginetik aitarena egiten saiatu egin baita, gure aita koitaduak utzitako hutsunea, eta nire ama eta arrebak nola edo hala betetakoa, berreskuratu nahian. Baina paso egiten dut nire anairaren kontura eztabaidaka hasteaz. Halabeharrez, Maredek ordaintzen du-eta.

–Eta burger hauek ez ote dute txerrikirik?

XIII

Auzoan dagoen jolasleku bakarreko zabuetan zein kale gorrira bota egin ez gaituzten tabernetako futbolin eta jolas-makinen ondoan goiza potrojorran eman ondoren, bazkalordu aldera gurera bueltatu gara behin berriro potrojorran jarraitzeko asmoz, Grabielekin elkartzeko ordura arte. Ni etxeke norbaitekin topatzeko beldurrak nago. Mâredék irribarretsu begiratzen dit, berak ez du halako ardurarik bere ama etxetik inoiz irteten ez baita, gehiena jota etxe azpiko harategi islamikoraino, berak dakien hizkuntza bakarraz barra-barra egin dezakeen aldetik. Nire kasuan, ordea, ez dut ama edo arrebak ustekabeen harrapatuta izateko beldurrik soil-soilik, badaude hor zehar nire lehengusu Hâkim jakintsua bere supermerkatu txatxar eta zantarretik edonoiz irten litekeena, eguerdian etxean bazkaltzeko ikastolatik datorren irakasleren bat edo, edota jeneralean nire ama eta arreba ezagun dituen edonor; biak gazteleraz polito modaltzen dira-eta. Hori horrela izanda, Maredek auzoaren goiko partean dagoen patio batera joateko proposatu egin dit bertan ezkutatzearen, orain dela gutxi goitik behera garbitu eta txukun-txukun eraldatu egin duten etxarte mehar eta sastar bat, eta guztiz bitxiak diren metakrilatozko-edo loreontzi erraldoi batzuk jarrita. Hara sartzeko burdinezko hesia jauzi behar izan dugu, jakina. Nahiz eta patiora jauzi egiteko nahikotxo ondo moldatu naizen, Mâredék txunditu egin nau hesira tximinoen modura igo baita, hau da, ziztu batean.

–Ia egunero etortzen naiz hona nire amarentzako errekaduak egiteko ordua jo arte.

Aitortu behar dut ez dela leku makala gu bezalako bi mutiko koskorren presentzia susmagarria kaleetatik saihesteko, gutxienez gu ez bezalako ikasle saiatu eta zintzoez arratsaldeko bostak aldera ikastetxeetatik tropelean ospa egin arte. Gainera, auzoaren goialdean egonda ere etxarte hain meharra den ezen babesleku aparta da hiri honetako eguraldi siberiatarrari aurre egiteko.

–Bueno, nik alde egin behar dut, errekaduen ordua da- eta–

Zer esanik ez, nik beherala somatu dut nire anaiaren itzala Mâreden ezusteko eskapada horretan. Nire lagunminak bakarrik uzten nau eta nik ez dakit zer egin edo nora jo bat- batean zulo haundi bat begitnantzen zaidan patio dotore honetan nazka-nazka eginda ez bukatzeko.

–Tori! Nolatan uste duzu egunak pasatzen ditudala lanean hasi aurretik? –Mâredék luzatzen dit bere polarraren barruan daraman minikontsola– *Emshi bes-salâma4!*

Ez dakit zer den gehien harritu nauena, Mâredék lanera joan behar duela esan izana ala orain eskuartean dudan Nintendo Game Advance ereduko minikontsola moñoña- moñoña, aurretik dudan asti luze-luzea nolabait betetzearren. Edonola ere, orain nintendo kontsola eredu berri eta bitxi honetan erreparatzekotan nire anaia berriro gogora ekarri beharrean nago. Gero eta argiago dut nondik ateratzen duen Mâredék etxean inola ere eman ez diezaioketen dirua halako tramankulu zoragarri bat erosteko. Aitortu behar dut, atsekabetzen nau nire lagunmina Yâserrerren itzalaren atzetik antxintxika ikusteak, ez da oso itzal onuragarria, guztiz mingarria baino, hasieran zeharo estaliko duena gainontzekoon eskastasunetik salbu mantenduz, eta herri honetara bila etorri garen etorkizun liluragarriarekin topo egin duelakoan, baina denbora eta, batez ere, legearekin tirabirak areagotu ahala noiz edo noiz kalte egingo diona atzerabiderik izango ez duenean. Hauxe da behintzat etxean milaka aldiz aditu diedana nire ama eta arrebari Yâserrerren kontura. Bera izan zen hona etortzeko mota guztietako argudioak eman zizkiguna –egia esan ez zitzaion askotxo kostatu, batez ere Marokon etorkizunik, hots, gure arbasoena baino hobea, zer dela eta ez genukeen inoiz izango zehatz-mehatz adierazten zigula– eta baita azkenean konbentzitu gintuena ere guk inola ere ordaindu ahal izango ez genituen pasajeak bidali eta gero. Garai hartan Yâsser begitandu zitzaigun gure Marokoko herrixkan hain goraiatuak omen ziren eta urtero kotxe ikaragarri handi eta ederrez, opariez gainezka eta dotore-dotore jantzita itzultzen ziren garaileen eredia, hau da, itsasartea zeharkatu eta europaratutakoan nolabait eta, batez ere, arin-arin aberastu, eta euren senitartekoak mendetako miseriatik egunetik egunera askatu zituztenetariko bat. Gu behintzat Yâserrerrek askatuta somatu genituen gure buruak hona iritsi ginenean. Bera zen ezagun genuen gizakume bakarra, eta bera izan zen nahiko itxura oneko pisu baten alokairuaz hilero arduratzen zena, nire arrebari ileapaindegia akademia ordaindu ziona, gure amari behar bezainbeste behar eta apeta ematen zizkiona; besteak beste gure amandrea Marokotik ekartzeko kudeaketa itzel guztiak burutu izana gaixoa gure ondoan hil zedin-edo. Yâsser mirestekoa genuen, gure babesle eta hornitzailea, hau da, gure aita sekula ez izandakoa. Hala ere, denbora aurrera joan ahala hasieran gure buruei egin nahi ez genizkien galderak egiten hasi ginen ezinbestez. Nola gure anaia bezalako mutiko ikasgabe batek dirua barra-barra erabil zezakeen? Eraikuntza? Gezur hutsa, nahiz eta nire ama eta biok sinesteko gauza eta gertu ginen, nire arrebak ezin zuen inola ere onartu bere begiek esaten diotenaren kontrakoa.

–Yâsser egunero ikusten dut kalean akademiarentz noala, Antzaren Enparantzako aulki batean eserita bere piurako hamaika gaztez inguratuta eta beraganatzen saiatu naizen bakanetan beti gelditzeko keinu bat egin dit, ez dakit nik zertan oso lanpetuta dela adierazi nahian.

Orduz geroztiz, eta zer esanik ez nire arreba Amira akademiatik irtendakoan bere aurreneko lanpostua behin lortuta, hau da, etxean beste badaezpadako diru iturri bat sartu orduko, nire ama eta arrebaren Yâsserrekiko jokaera zeharo aldatu zen. Ordura arte beti goresteke bakarrik gogoan duten seme eta neba, gure garaile eta babesle porrokatua, ia miseriatik jaregin gintuena, ia egunetik egunera –gure arrebak Antzararen parkean gazte susmagarri haiekin tratuetan ikusi zuen arratsaldetik gero– apenas ezagutzen zuten seme eta neba harro eta uzkurra, goizero nora zihoan inoiz aitortzen ez ziena, beti larruzko jaka beltzak, zetazko alkandora nabar-nabarrak zein bere gizentasuna ezin ageriago uzten zuen praka estu-estu eta karu-karuak janzten zituen makarra itxurako gazte txit susmagarria izatera bilakatu zen.

–Espero dut Alim gaixoa zure tratuetatik urrun lagatzea, bera bai dela ikasle ona, bestela...

Bestela zer, ala hobeto esanda, zerekin mehatxa zezakeen gure amak etxeko beharrian guztietarako dirua beti gertu eta erruz zeukan semea, anaia handia izanda gure aitak utzitako hutsunea nahitaez bete egin zuelakoan bere babesari inola ere uko egin nahi ez zion gizonezko marokorra. Ezerekin ez etxeko diru iturri nagusia izaten jarraitu bitartean, hau da, harik eta gure arrebak behin-behineko lanak egiteari utzi eta Pellejeria kale barreneko jauregi baten oinazpian dagoen ileapaindegi hartan benetako soldata iraunkor bat eskuratu zuen arte.

–Ezin dut onartu nondik datorren ez dakidan diru bat.

Gure amak ezin zuen Yâsserren diru zikina onartu nire arrebaren aurreneko nominaren zenbatekoa ikusi eta gero. Orduz geroztik Yâsserren dirua ez zen garbia, gutxienez susmagarria baino. Gure amaren ustez hobe genuen gure etxetik at izatea, badaezpada. Baina, jakina, Yâsser ez da sekula etsi, berak uste baitu gu hirurok babestea Alahek-edo emandako agindu bat dela. Hori dela eta, eta batez ere gure amak etxetik oso noizean behinka pasatzea eskatu arren –gutxienez benetako betebeharrak nominadun eta taxuzko bat eskuratu arte–, Yâsser beti egoten da prest hirurotako inori mesederen bat egiteko, hau da, nire ama edo arrebak oso egoera larri-larrian bakarrik eskatuko zioten mesede bat.+

Sinesgaitza bada ere, nik halako tramankuluei beti muzin egin baitiet denbora pantaila baten aurrean alperrik galtzeko telebistaz dezente dudalakoan, horretarako nire bizikleta zorigabekoa gogokoago nuen, The Legend of Zelda, Phantom Hourglass izeneko jokoaz jardun naiz ilusentiko hozkirria somatzen hasi arte. Egia esan, Mâreden minikontsolari ekin baino lehenago halako joko txatxuetan etxetik at iragan ohi dituen ordu guztiak benetan aspergarria egiten zitzaizkidan, pena eta guzti ematen

zidan nire adiskidea orain nagoen zoko baztertu honetan ezkutatuta eta bakar-bakarrik irudikatzeak. Baina aitortu beharrean nago ez dela nik uste bezain aspergarria. Behin botoei gogoz ekin eta gero, eta batez ere jokoaren nondik norakoak halamoduz ikasita, denbora zirimola modura joaten da inguratzen zaituen guzti-guztia ahaztuz. Zorionez, ez naiz Mâred ote den bezain trebea eta jokoaren bigarren mailan tratatzen naiz etengabe. Ondo ba, bukatu da, bestela ilunkarak irentsiko nau inor gutxi ezagutzen duen zoko honetan eta okerreana, behin berriro eta agian betiko ere nire bizikleta maitea galduko dut, ez baitut uste Gabriel jaunak behingoz bat berreskuratzeko beste aukera bat emango zidanik. Erlojuari erreparatutakoan ikaragarri aztoratu naiz eta beste inon ez nekiela nire galtzaren atzeko aldean eta ia arin-arinka eta erdizka bakarrik gorde izan dudana zorioneko minikontsola jausi zait burdinazko hesia berriro igotzerakoan. Zorutik hartu eta behin pizteko inolako modurik ez dagoenez izutzen naiz. Badakit kontu handiagoz begiratu behar dudana ea bene-benetan izorratu den, baina ez dut denborarik makinatxoaren barrenak ikuskatzen hasteko, edonola ere, eta okerrenera joz, beste minikontsola berri bat erosi ahal izango diot Mâredi, ez dakit zernolako diruz, baina tira, zer bestela, nire errua izan da eta tramankulu madarikatu hau nire adiskidearentzat zernolako garrantzitsua zen asmatzea ez zait askotxo kostatzen, nik uste maiteen duena.

Kantoiaren beheara noa ia laprastaka Petrineria kale dotoreraino, handik, dagoeneko nahiko berandu da-eta, Algareria kalerantz zuzen-zuzen eta arin-arin abiatzarren. Beldurrak nago Gabrielekek, ni garaiz eta tokian ez ikusita, handik ospa egingo duen behin betiko gogait gaiztoz bizikleta galtzarbean eta nire kastako batek enegarren aldiz huts emanda. Atzokoaz gero agurea ez zait begitantzen usteko nuen basapiztia arrazista oso tipo zuhur eta benetako jatorra baino, hau da, beti nire atzetik, eta berak dioenez beti ere nire on beharrez omen, kuxkusean izan ohi dudana irakasle superjator eta hiperkontzenziatua hamaika aldiz baino egiazkoagoa. Gabriel jauna behin gertutik ezagututa beherala oso bihotz onekoa dela jabetzen zara; baina, hala eta guztiz ere, eta ez dakit nik adinaren kontua den ala zer, oso suminkorra dela ere antzematen zaio, batez ere bere ustez buru buztanik ez duten kontuak egin edota esaten dizkiozunean, denbora kaikuakerietan alperrik galtzea egin diezaiokeen bekaturik larriena bailitzan. Beldurrak nago, beraz, gaur gero ez ditudan inoiz berriro ikusiko nire bizikleta eta bera ere bai. Eta askoz beldurrago ari naiz Algareria plazaraino heldu eta Flor de Lis tabernaren inguruan pilatzen den jende andana eta sirena argiak dirdir eta jirabiraka dituen kotxe batetik bi ertzain jaisten ikusten ditudanean nire irakasle superjator eta hiperkontzenziatuak atzo agureari egindako mehatxua azken finean bete ote duen.

—*Alim, ayndek!*5, zure anaiz...

–Mâred? Zertan ari zara?

Ba galdera inozoa, egunero bezala Yâsserren aginduetara, prakaren barruan matxuratuta daramadan minkontsola bezalako kapritxo subentzionatzen dizkion nagusi eskuzabala, eta sirena argiak eta ertzainak tartean ikusita, ez dut uste ahalegin handirik egin behar dudarik nire anaiaren morroia zertan ari den asmatzeko, Iñaki irakaslearen esku hartzea alde batera zeharo utz dezadan. Nor ote zen nitaz gain gaur arratsaldean Gabriel jaunarekin topo egin behar nuela zekien bakarra? Kontu gutxi atera behar dut nire anaia Mâreden eskutik, eta nire bizikletaren lapurra omen den Gabrieli labana eskuan oldartzen irudikatzeko. Egia esan, espero behar nuen, ezin besterik pentsa behingoan nire arrebaren hitzak gogora ekarri eta gero: *hobe genuen Yâsserren laguntza bizikletarena gure artean bakar-bakarrik konpontzearren.*

–*Balek, balek!* –nire senetik erabat irtenda Flor de Lis tabernaren ate ondoan biltzen den jendeak egindako begiluze hesia apurtzen saiatzen naiz- zer esanik, okerreña begitantzen zait.

–Alím, zure anaia...

Ez dizkiot Mâreden hitzei erreparatu nahi, banekien nik, etxean denok omen genekien, Yâsser noiz edo noiz espetxeratuko zutela, egia esan aspalditik ari da amildegi ertzean kili-kolo, eta nire lehengusu Hâkimi zor diodan atsotitz batek dioen bezala: gizonak ezin du bere itzaletik haratago jauzi egin. Benetan ikarutzen nauena, ordea, ez da Yâsser eskuburdinez lotua eta ertzainek besotik oratuta kartzelara bidean ikustea, agure gaixo horri egin ote diona asamatzea baizik. Biak ezin egoskorragoak izanda, inoren aurrean aise kokiltzen ez diren bi ahozabal, ez bailitzateke batere harritzekoa biotako bati lepoa moztu izana, eta jakina, badago Hâlimek ere irakatsi zidan beste atsotitz bat: “lehoi gazteak zaharra oinperatuko”.

–Non dago nire anaia?

Galdetu berri diot Gabrieli berari, hau da, ertzainek besotik ebatuta. Agure berberak adierazten dit keinu etsi batez lurrean etzanda eta ia arrapaladan heldu berri diren erizainek inguratuta dagoen gorputz zauritua nire anaiarena dela.

–Badirudi mairuak labana batez eraso egin diola oharkabea, eta orduan agureak defentsa modura zeraman bizikleta bat burura jaurti egin diola izugarrizko indarrez –gertatutakoa azaltzen didan ertzainak harri eta zur uzten nau.

–Baina, non dago nire bizikleta?